



11. ONDARE KULTURAL, NATURAL ETA PAISAJISTIKOARI BURUZKO ALDERDIAK

11.1 SARRERA ETA ESPARRU JURIDIKOA. BABESERAKO GIDALERROAK

Ondare artistiko, historiko, arkeologiko, natural eta paisajistikoaren gainean sortzen diren gidalerro legal edo mugapenak, plangintza orokorrerako baldintza garrantzitsuak sortzen dituzte, indarrean dagoen araudi sektorialaren bidez onartuak eta aurreikusiak daudenak.

Vitoria-Gasteizko ondare artistiko, historiko, arkeologiko eta etnologikotik hasita eta ondareari buruzko araudiarekin ados, Ondare Kultural bezala helburua ez da bakarrik ondasunen kontserbazio eta babesa, baizik eta, transmisioa, sustapena eta balioan jartzea. Iraganeko ondasunak kontserbatzeko eta transmititzeko merezimendu gisa ulertua.

Kultura Ondarearen inbentarioa (historikoa, arkeologikoa, etnografikoa) eguneratzea eta egokitzea, zein udalerrriaren kokapen natural eta paisajistikoa babestea ezartzen da. Eta ur ibilguen bideak bere ibilbideetara sartzea.

Kultura Ondareari dagokionez, ondoren esparru juridiko garatzen da eta aurretik garatutako helburuak kontutan hartzen dira.

7/1990 Legean uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoan aipatutakoa azpimarratu behar da (EHAA, 157zk 1990.urteko abuztuak 6), Kultur ondarea aldezea, aberastea eta babestea eta horren zabalkunde eta sustapen egitea du xede. Datuen kondairatikako, artezko, hirigintza, etnografi, zientzi, teknika gizarte-aldeetikako balioagatik kultura-interesgarritasuna izanezko eta, beraz, babes eta aldezipena merezi duten ondasun osatzen dute kultur ondarea. Lege honen 44.2 artikuluan ondorengo aipatzen da:

“Indarrean den legeriaren arabera Ingurugiro-inpaktuaren gaineko ebaluazioa izango duten proiektu guztiek izan beharko dute foru aldundi egokiak emandako txosten arkeologikoa, hain zuzen ere, txosten horren ondorio diren baldintza eta kontsiderazioak sar daitezzen deklarazioan”.

Lege honen ondoriotarako, euskal herriko kultur ondarea osatzen duten eta zermugatu eta zerrendatu daitezkeen ondasunak, honako maila hauetakoren baten sailkatu beharko dira:

- **Monumentua:** ondasun higigarri edo higiezina, banan-banan ondasun kulturala aintzat hartuta.
- **Monumentu-multzoa:** unitate kulturala osatzen duten ondasun higigarrien edo higiezinen multzoa.
- **Espazio kulturala:** tokiak, jarduerak, sorkuntzak, sinesmenak edo Iraganeko gertakariak Euskal Herriko kultura eta bizimoduaren adierazpenaren forma garrantzitsuekin lotuta.



Sail honen lehia Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zentroari dagokio, Jabetza Kualifikatuen Erregistroan eta Eusko Kultura Ondarearen inbentario orokorrean inskribatu behar da bere deklaraziorako.

Ondasun kultural hauek aldi berean, arkeologi zonaldeak bezala kontsidera daitezke bere azterketa metodologia arkeologikoaren aplikazioa behar badu, 7/1990 Legearen 44.1 artikuluan zehazten den bezala.

Lege honen arabera, **234/1996 dekretuak Balizko Arkeologia Guneen (BAG) erregimena ezartzen du** (EHAA, 205zk 1996.urteko urriak 23), zonaldeen mugak eta zehaztapenerako erregimena onartzen du, orubeak eta eraikinak, balizko arkeologienak eta arkeologi balioaren edukiera. Aipatutako Ondare kultural Legearen 49.artikuluan aurreikusia.

- 2.artikua: Inguru, orube zein eraikinak balizko arkeologia gunetzat (BAG) jotzeko izendapena, Kultura Ondarearen arloaz arduratzen den sailburuordeak egingo du Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak horrela eskatuz gero. Sailburuordeak emango dio hasiera dagokion espedienteari, Kultura Ondarearen Zentroak egingo duen txostenean oinarrituta.
- 3. Artikulua: orube zein eraikin batean aztarna arkeologikoak egon daitezkeela frogatzeko, leku horretan Arkeologia Zientziak balizko aurkikuntza arkeologikoen aztarnatzat hartzen dituen elementuetakoren bat badagoela egiaztatu beharko du.
- Deklaratutako zonaldeetan edozein obren proiektua hasi aurretik edo hunkitutako elementuaren gain eragina duena, Ondare legearen 49. Artikuluan aipatzen den bezala, Arabako Foru Aldundiak baimena emango dio (gaur egun Kultura Sailaren Museo eta Arkeologia zerbitzua).

Lege honekin batera **342/1999 dekretua, 1999ko urriaren 5koa, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusiari buruzkoa** sortzen da (EHAA 203zk 1999ko urriak 22 akats zuzenketekin EHAA 231zk 1999ko abenduak 2). Hauetan inskribatu beharko da, hurrenez hurren, kalifikatutako kultura ondasunak eta, azken hauek adina garrantzia eta balioa eduki ez arren, euskal kultura ondarea osatzen duten elementuak.

Arabako Ondare Historikoari buruzko tokiko araudia **otsailak 23ko Arabako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko 5/1998 Foru Araudiak** erregulatua dago (ALHAO 28zk. 1998ko Martxoaren 6koa). Aipatutako Foru Araudiak, jabari publikoko ondasunen erregimena eta jabari pribatuko ondasunak erregulatzen ditu, Arabako Lurralde Historikoaren Ondarea osatzen duena.

Beste alde batetik, Vitoria-Gasteizen, hurrengo afekzioak ditugu, besteak beste Kultura Ondarearen babesari dagokionez, Multzo Monumentaleko kategoriarekin: Vitoria-Gasteizko Hirigunea, Arkaiaren Arkeologi Zonaldea eta Donejakue bidearen Multzo Monumentala.

- **Abenduak 2, 12/96 aginduaz, Vitoria-Gasteizko Gune Historikoa Arkeologi Gunea bezala izendatu zen, Monumentu Multzoan Ondasun kulturalaren kategorian Eusko Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean** (EHAA 9zk. 1997ko urtarrilak 15). Esparru



juridiko honetan hunkitutako zonaldea mugatzen da, Erdi Aroko Gune Historikoa mugatzen da eta Vitoria-Gasteizko Udalari, Arabako Kultura eta Hirigintza Sailari eta Arabako Foru Aldundiari premiatu egiten zaie. Zonalde honen jarduketa AFaren baimena behar du, Arkeologi Proiektua garatu aurretik, 7/90 Legearekin ados.

- **Vitoria-Gasteizko Gune Historikoa, Monumentu Multzoa bezala kalifikatuta dago Eusko Jaurlaritzaren abenduak 23ko 312/1997 Dekretuaren arabera eta bere babes erregimena finkatzen da (EHAA 9zk. 1998ko urtarrilak 15).** Agirian babes maila ezberdinak ezartzen dira (berezia, ertaina, oinarrizkoa, ordezkoko elementuak, bate ez datorrenak eta hirikoak), guztiak udalerriko hirigintza plangintzari lotesleak.

Ondorioz, Dekretuak hainbat aldaketa izan ditu Gune Historikoaren higiezin ezberdinen borondate txarrekin hasteko (Ekainak 8ko 245/1999 Dekretua, EHAA 117zk. Ekainak 22; 1999. urteko irailak 6ko ebazpena, EHAA 182zk. Irailak 22; azaroak 18ko 281/2003 Dekretua).

- **387/2013 DEKRETUA, uztailaren 16koa,** aurri-egoerako deklarazio-prozeduraren barne dauden Vitoria-Gasteizko **Barnekale Berriko 21 eta 23an** diren higiezinak partzialki desafektatzea ebazten duena (EHAA, 139 zk 2013ko uztailak 22), hondatuta dagoenaren deklarazioa, 312/1997 Dekretuak hunkitutako ondasun kulturalak.
- **237/2017 Dekretua, urriaren 17koa,** Vitoria-Gasteizko **Aitzogile kaleko 45. zenbakian de higiezina partzialki desafektatzea ebazten duena (EHAA 203 zk. 2017ko urriak 24),** 312/1997 Dekretuak hunkitutako ondasun kulturala.
- **Irailaren 5eko 2224/1962 Dekretuak, zeinak Donejakue Bidea multzo historiko-artistiko izendatzen baitzuen (EAOko 215. zk.an argitaratua, 1962ko irailaren 7an),** ibilbidea grafikoki irudikatu gabe.

Dokumentuak eragina zeukan udalerraren zenbait higiezinaren gainean: Jasokunde Parrokia-Eliza eta Arkaiako zubia; Santa Kolunba Parrokia-Eliza Argandoñan; Ariñiz eta Oreitiako San Julian eta Santa Basilizia Elizak; Alegria gaineko zubia Oreitian eta Abendalako San Martin Baseliza, Vitoria-Gasteizen.

Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoaren barruan eta 7/1990 Legearen 12.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko eta Armentian San Prudentzio Baselizan elementu bikainak kontsideratzen dira.

Ondorioz, eta behin Kultura Ondarearen arloan onartutako kompetentzia eskusiboa, **urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez, Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia.** Orduan zehaztu zen grafikoki bidearen trazadura, baina garrantzi gehiago eman zitzaion eduki xakobearen aldetik garrantzia zeukaten mugarriak lotzeari, trazadura bera bide fisiko moduan zehazteari baino. Horrek erabat lauso utzi zuen, definitu gabe, bidearen trazadura; baina ondorengo azterlanek zehaztaperen gehiago eman dute apurka-apurka.



2010.urteko uztailaren 29ko ebazpenean, Ondasun Kultural Sailkatuaren espedienteari hasiera ematea adosten da, Monumentu Multzoko kategoriarekin, Donejakue bidearen alde EAetik pasatzen denean (EHAA 171zk. 2010.urteko irailaren 6an).

2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen Zatia Monumentu Multzoaren kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa (EHAA 19zk. 2012ko urtarrilaren 27),urtarrilak 25eko 14/2000 dekretuaz ordezkaturia.

2/2012 Dekretu honen III.eranskina babes erregimen bat ezartzen du, erregimenari buruzko izaera duten artikulua, aplikazio eremua, hirigintza plangintzarekiko erlazioa eta udalerriko jarduerekin zerikusia duten bestelako aspektuen kapituluak ateratzen dira:

I Kapituluak,

1. art.: *Babes-erregimen hau idazteko arrazoia Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 12. artikulua arautzen du. Donejakue Bidea Kalifikatutako Monumentu Multzo deklaratzeko izendapenaren baitan sartzen da, eta babes-erregimenak adierazitako alderdiek izaera loteslea dute kultura-ondasun hori kontserbatu edo berreskuratzeko eragiketetik. Hala arautzen dute adierazitako lege horretako 28.1. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 199. artikulua. Horiek horrela izanda ere, hirigintza-planeamenduko bitartekoek arau murriztaileagoak xeda ditzakete, ondarea kontserbatzeko neurrien jardun-modua zehazteko.*

2. artikuluan aplikazio eremu bezala, ezartzen da: Babestutako elementu guztiak Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen menpean egongo dira, alde hauei dagokienez: baimen-erregimena, erabilera, jarduera, defentsa, zigorrak, arau-hausteak, esku-hartzeak eta abar. Donejakue bideko elementu guztientzako aplikatu ahal izango da (2.2 art.).

3. artikuluan: Donejakue Bidearen Monumentu Multzoari lotutako elementuak dira:

a) Ibilbidea bera eta hura osatzen duten bide-motak. b) Bidea osatzen duen obra zibila. c) Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak. d) Bidari lotutako beste elementu batzuk.

4.Art.: **Hirigintza Plangintzan betebeharreko baldintzak betetzeko erlazioa ezartzen da:** Babes-erregimenen honetako ondasunaren hirigintza-planeamendua egiteko, 7/1990 Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen 28.1 ataleko txostena behar da, eta horien barruan sartzen dira eraikuntzak bateratzeko ahalmena, eraikuntza berriak barne. (5.2 art). 5.3 artikulua ezartzen du: ***babes-erregimen hau garatuko duten hirigintza-arauak onartu arte, Lege horren 28.2 atala betetzekoa da.***



Kontserbazioari buruzko eginbeharrak eta erabilerei dagokien hurrengo artikulua, eta egitura multzoarekin harremana daukatena, azpimarratuz **7. artikulua: bere ingurunean burutuko diren eraikuntzako esku-hartzeak**. 7.3 atalean: kalifikatutako kultura-ondasunetan eta horien inguruetan egin nahi diren esku-hartzeek dagokion lurraldeko foru-aldundiaren baimena beharko dute, eta baimen hori eskuratu beharko da udal-lizentzia eskuratu aurretik. **Erlijio-gurtzarako kultura-ondasunen** kasuan, aintzat hartu beharko dira erabilera horrek dituen eskakizunak.

7.4 atalean eraiketaren gaia lantzen da baina bakarrik egin daiteke 7/1990 Legearen 36.artikuluaren eta azaroak 10, 306/1998 dekretuan aipatzen denaren arabera. Eraikuntzen barruko husteak, eraisketa partzialaren kontsiderazioa daukate eta horregatik, legearen agindu honi esleituta daude.

9.artikuluan, parte hartze proiektuei dagokionez, 9.1 puntuan ondorengoa ezartzen da: *Babes berezia, ertaina edo oinarrizkoa araututa duten eraikinetan edozein esku-hartze egin aurretik, dagokion esku hartzeko proiektua egin beharko da. Hauek behar ditu esku hartzeko proiektu horrek: Eraikinaren egoerari buruzko **azterketa analitikoa**; alegia, txosten historiko eta arkeologiko bat, eraikinaren deskripzioa, eta kontserbazio-egoerari buruzko azterketa, txosten diagnostikoa, ondorioak eta esku-hartzeko oinarrizko gomendioak biltzen dituena.*

II kapitulua, bide-trazadura osatuko dute Donejakue Bideak Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean euskarritzat dituen pistak, bideak, bide historikoak, errepideak eta kaleak, Donejakue Bideak berak dituen bi ibilbideetan: kostaldeko bidean eta San Adriango tunelaren bidean.

Arabako Lurralde Historikoa eta zehatzago Vitoria-Gasteizko udalerririk **San Adrian tunel** izendatutako bidearen esparruan kokatuak daude.

Kapitulu honetan itxura ezberdinak definitzen dira (10-15 art.), bere babes erregimena finkatuz, bereziki egiturazko jardueretan. **13.12 Artikuluan** burutu daitezkeen jarduerak aipatzen dira, Aldundiaren Kultura Sailari baimena eskatu ahal zaio, proiektu osoan sortutako inpaktua eta neurriak Bidearen baldintza egokiak berrezartzeko.

III kapitulua, 16-20 artikuluetan erregulatutako parte hartzeak eta Donejakue bidearen **obra zibilen erabilerak**, zubiak eta galtzadak horrela ulertuz gero. IV Eranskinaren bigarren zerrendan azpimarratuak geratzen dira.

IV kapitulua monumentu multzoen **babes erregimenean** eta ibilbidearen monumentu multzoen higiezinak **finkatzen** da, babeserako hiru maila ezarriz: berezia, ertaina eta oinarrizkoa. Babes ingurunea 15 metrotan finkatzen da babes bereziko eta ertaineko elementuentzako.

V kapituluak, Ibilbideak eragindako beste elementu batzuetarako babes maila bakarra definitzen eta ezartzen du, pikotak eta bideko bidegurutzeak bezala.



Bidearekin erlazionatutako elementuen zerrenda ezberdinak babes esparru honen barnean dagoena, **Katalogo Atalaren** barruan agertzen dira.

- **222/2017 Dekretua, irailaren 19koa, Zadorra ibaiaren arroko zubiak monumentu-multzo kategoriarekin Kultura Ondasun Kalifikatuak deklaratzeko** (EHAA 184zk. 2017ko irailaren 26koa) daukan interes historiko-kulturala ikusita. Dokumentuak bere babes ertainaren barruan hurrengoak aipatzen ditu: Amarita, Abetxuko, Gobeo, Aztegieta, Foronda, San Kristobal (Foronda), Lafuente eta Martioda. Egiturazko, eraikuntzako eta historiko babes mota definituz. Oinarrizko babesaren barruan, Askartza, Puente grande, Monasterioguren, etb... zubiak daude eta aldi berean bere babes mota definituz.

Azkenik, **Kultura Ondarearen LPSa**, Kultura Ondarea babesteko lurraldea antolatzeko tresna da. Hortaz, oinarrizko lege hauek lotzeko puntua suposatzen du: Lurraldearen antolamendua eta Kultura Ondarearena, biak 1990. urtekoak. LPSak hiru blokeak sistematizatzen ditu:

1. Xedapen arauemaileak, Kultura Ondare Higiezinaren ondasunak identifika dezaten, beren kategoria eta babes mailak finka dezaten, aipatutako ondasunei lotutako hirigintzako kategoriak definitu dezaten, eta babes xedapenak, aplikatzeko erak eta beren izaera loteslea definitzeko.
2. Hobekuntza eta babesaren sustapenerako orientazioak, babesaren programazioaren bidez eta ekintza publikoak finkatzeko lehentasun ordenaren bidez eta babeserako, zaintzeko eta hobekuntzarako laguntzak partikularrentzat.
3. Garapenerako orientazioak, hirigintza eta lurraldeko garapenerako jardueretako kultura ondasun higiezin zehatzak integratzeko, eta kultura-jardueren egoitza gisa egokiak izan daitekeen gunek, babesteko ondasunaren balioei eta izaerari lotuta.

LPSaren Aurrerapena 2001. urteko uztailaren 6an onartu zen eta hortik aurrera ez du tramitazio kurtsoa jarraitu. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ez du inoiz erreferentzi gisa dokumentua aipatu.

11.2 ERREFERENTZIAZKO TXOSTEN SEKTORIALAK

Aldez aurreko Ikasketa Idazketa lanean, Vitoria-Gasteizko HAPOaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa espedientea baino lehenagoko kontsulta fase bat egin zen. Ondorioz, organismo ezberdinen aldetik txosten ezberdinak suposatu zuen Vitoria-Gasteizko ondare babes erregimenean eragina daukatenak.

- AFA Kultura Sailaren txostenean EEBE 2010 023 espedientean, 2010ko azaroaren 15ekoa, Vitoria-Gasteizko Ondare Arkeologikoen alderdi erlatiboari buruz hitz egiten da, arkeologia gunearen sailkapen batzuk proposamen bat bezala ulertu behar dira, ondasun ondareen sailkapena Eusko Jaurlaritzari dagokiolako. Hortaz, **Aurrerapenean**



7/90 Ondare Legean inbentariatu edo kalifikatu direnak bakarrik aurkeztuko dira, proposamenean babesarik ez daukatenak mantenduz.

Aipatutako txostenean, galtzada erromatarrari Iter XXXIV buruzko aurreko ikasketetan aipatutako proposamena ez da egokitzat hartzen, baizik eta Eusko Jaurlaritzari kalifikazio ahalik eta arinen egitea proposatzen du.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendariaren txostenean (2008ko apirilekoa) Vitoria-Gasteizko Interes Kulturalerako Ondasun Higiezinako eranskin bat dago, Ondarearen Historiko-Arkitetkoniko eta Arkeologikoari buruz. Aldi berean, babes neurriei dagokionez, aurreratzen du Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egunerapenean lantzen ari dela.

Espediente hauen banaketari dagokionez, parte hartzeak Zaharberritze zientifikoak eta Zaharberritze kontserbatzaileak izatea gomendatzen du, 317/202 Dekretuan agertzen diren Urbanizatutako eta Eraikitako Ondarearen birgaitzetik babestutako jarduketak.

Tokiko interesa daukaten ondasunen kasuan, jasaten dituzten obrak bolumetria, kanpoko irudia, tipologia banaketa eta oinarritzko egitura errespetatzea gomendatzen da, 317/2002 Dekretuaren arabera berriztatze kategoriaren barruan sartuz.

Ondare Arkeologiari dagokionez, Sailkatutako Kultura Ondasunen dekretu erlatibo ezberdinak, Banatutako eta Inbentariatutako Arkeologi Guneak eta bere babes erregimenak aipatzen dira.

Aurrerapen honen HAPOan datuekin zerrendak sartuko dira, inbentarioaren eguneraketaren zain.

- Erreferentzia Agirian, EEBE ECIA 2010 023, 2010.urteko azaroaren 29koa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Antolamendu Zuzendaria da. Sailkatutako eta Inbentariatutako Kultura Ondasunak ere aipatzen dira eta babes erregimena daukaten arkeologia guneak, kontuan hartzen ez diren arkeologia gunei sailkapen bat proposatuz.

Aipatu beharra dago urte asko pasa direla txosten hau idatzi zenetik, hortaz ziur aski zerrendak ez dira eguneratuak egongo, arazo hau HAPOan zuzenduko da hurrengo fasean.

11.3 ONDAREAREN BABESA GAUR EGUNGO PLANGINTZAN

Fase honetan aurretiko ikerketen bidez ateratako katalogoetan oinarrituz ondorengo arkeologi, historiko, artistiko eta Tokiko Erakunde Txikiko ondare taulak egin dira. Eusko Jaurlaritzaren kultura ondarearen zentroak finkatutako babes mailak dira, 7/90 Euskal Herriko Ondare Legean oinarrituz.



Aurkeztutako tauletan zutabeetan agertzen den informazioa hurrengo da: mugarri bakoitzaren zenbakia, Eusko Jaurlaritzaren Ondare Zentroak emanda, izendapena, kokapena, babes maila, kategoria eta kaleratutako data.

Babeseko zutabeetan ondorengo sigla erabili dira:

HAG: Hasitako Arkeologia Gunea

BAG: Balizko Arkeologia Gunea

BBAG: Babestu Beharreko Arkeologi Gunea

Maparen puntu guztiak eta Aurrerapenaren izaera propioa daukaten taulen datuak, elementu guztien berrikuspena egitera bideratzen denean, Kultura Ondarearen eguneratutako inbentariora jo arte. Inbentarioa aztarnategi arkeologikoen babes maila zehaztea eta mugaketaren arduraduna da.

11.3.1 HIRIGUNE HISTORIKOA

Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa, Monumentu Multzo izendapenez 1997. urtetik, Eusko Jaurlaritzaren abenduak 23ko 312/1997 Dekretuaren arabera. Ondorengo aukeretan hainbat alditan eguneratua edo aldatua izan dena.

Azterketa globala

Euskal Autonomi Erkideagoan interes artistiko handiena duen gune historikoa Vitoria-Gasteizen dago. Lurraldearen goragune batean kokatua dago eta Gasteizko muino zaharra da. Plano eliptikoan almendra egiturazkoa da eta gaur egun oraindik hiriaren gune historikoa mantentzen du.

Berezia da antolamendu izaeran eta hiriko egiturari, nukleotik zentrokide formarekin banatzen da herria osatzen zuten hiru kaleetatik, goiko partean kokatuak, harresi barruan eta XII. mendekoak. Ondoren, XIII mendearen hasieran, muinoaren mendebaldetik hedapen bat eman zen eta bere kanpoko muga itxi egin zena. Mendearen erdian ekialdetik antzeko formarekin osatu zen.

Honela egituratu zen Vitoria-Gasteizko hiri bilbea, aldaketa handiak izan gabe XVIII menderaino. Mendearen amaieran, hiri zaharra berriro zen eta muinotik ordokira pasa da, hegoalderantz, Arkupea eta Espainiako Plazan zehar.

Vitoria-Gasteizko Gune Historikoaren berezitasunagatik ez dago bakarrik bere lehenaldiko erdi aroan, hiri bilbean eta tenplu gotikoetan agerian dagoena, baizik eta jauregiko errenazimendu arkitektura eta arkitektura barroko kopuru handia eta izaera bereziko beste adibideak, Arkupea eta Espainiako plaza izaera neoklasikoarekin.

Hiriaren arlo honetan aurrezteko merezi duen balio kantitatea eta aniztasuna dela eta, Eraikuntzako fase bakoitzari erreferentzia egingo diogu:



- **Erdi aroko etapa gotikoa:**

Tarte ezberdinen eta hesien etapak balio handikoak dira. Monumentu Multzoaren barruan oinarrizko babesak daukate (BAG 220). Vitorian hesien aztarnak garrantzi handiago daukate beste lurralde autonomoen nukleoekin konparatuz. Kontuan izan behar dugu harresi bikoitza mantendu zela XIX.menderarte.

- **Erdi Aroko hirigintza antolatzailea**

Jatorrizko herriak oraindik ere N-S norabide-egitura mantentzen du, muturreko gotorlekuak irudikatzen dituzten bi elementu arkitektonikoekin: Santa Mariako Eliza Nagusia eta San Bizente Eliza; hiru kaleetan zehar egituratua eta aldi berean zeharkako ertzeekin moztuak. San Miguel eliza ahaztu barik.

1.202.urteko sutearen ondoren Suso herria desagertu zen, gaur egun ez daude erdia aroko orubeak eta herriko eraikuntzak, baina bai, hirigintza egitura eta hesi aztarnak, eta aipatutako bi tenpluen arteko gotortutako itxiera.

Bai 1202ko (mendebalde) zabalgunea eta bai 1256koan (ekialdean), planimetriaren kontserbazioa azpimarratu behar da, Suso herria ezartzen den bihurtzearekin egokitua.

Muinoaren bi maldetan, etxebizitzak lurrikatuak neurri handi batean mantentzen dira eta kasu gehienetan batez besteko altuera errespetatzen da, 3 edo 4 altuerakoak. Neurri handi batean, erdi aroko antzinako orubeei lotutako eraikuntzak etxebizitzari dagokionez mantentzen dira. Beheko solairuan Kalera irekitzen ziren bi hutsunetan, sarridera eta merkataritza erakusleia. Etxebizitza batzuetan kontserbazio handia daukaten egiturak "alproja" etxeak dira. Etxebizitza hauek gainera, Vitoria-Gasteizen kasuan iturri baten goiko alde batera irekitzen ziren. Eta teilatuarekin bi uretara estaltzen ziren kaleari paraleloan dagoen gailurrari.

Zabalgune bakoitzari tenplu parrokia baten eraikuntza dagokio: mendebaldean San Pedro eta Ekialdean San Ildefonso. Azken hau ez da kontserbatzen, baina bai XIX.mendean eraiki zen kapera txiki bat, bere kokapena gogoratzen du eta bere barnean balio artistiko handiko higiezin pieza bat gordetzen du: San Ildefonsozko kristoa, XIV.mendekoa eta antzinako San Ildefonso atariari lotua dagoena.

Erdi aroko multzo honetan funtsezkoa da hurrengo tenpluen presentzia: Santa Maria, San Pedro, San Migel, San Bizente eta San Ildefonso kapera. Lehenengo laurak **babes maila berezia daukate.**

Gainera, erdi aroko azken mendeetan Hirigune Historikoaren eraikin zibilen barruan babesarako izaera eta hiri bilbeko gotortuen aztarnak geratzen dira: Andatarren dorretxea, babes maila bereziarekin, eta Doña Ochandaren dorretxea, babes ertaineko babesarekin.



Gaur egun ikusgarri diren Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoaren beste elementuak ingurunean dauden **zaindarien horma-hobiak** dira. **Modu berezian babestu** behar direla uste dugu bere izaera historikoaren garrantziagatik, hiriaren ohiturak eta gremioak zeuden aztarna oso zehatzak dira.

Hirigune historikoaren zonalde batzuetan neurri handian kontserbatzen dira erdi aroko mendeetan kaleak eta etxebizitzak zelakoak ziren gogoratu ahal duten irudiak. Hurrengoak dira: hedegile, zapatari, errementari, txikita kaleak, San Migel lursaila... zonalde hauek **babes maila berezia** daukate.

Hiriaren harresiz inguratutako esparrutik kanpo, monakal multzo ezberdinak eraiki ziren: **San Frantzisko eta Santo Domingo** multzoak HE eta IM-ko muturretan, gaur egun aztarna batzuk bakarrik geratzen dira, **Santa Klara komentua**, gaur egun ez da ezer ikusgarri geratzen. La Magdalena eta Santiago Ospitaleen kasuan gauza bera gertatu zen. Hala ere, guztiak daukate arkeologi babesia:

- Santa klara Komentua BAG, 215
- San Frantzisko Komentua BAG, 219
- Santo Domingo komentua BAG, 224
- La Magdalena Ospitalea BAG, 217
- Santiago Ospitalea BAG, 218

o **Aro modernoa (XVI-XVIII Mendeak)**

Vitoria-Gasteizko hirigune historikoa mende hauetako arkitektura eraikin asko kontserbatzen ditu, gaur egun aurretik zegoen hirigintza eta arkitektura multzoari lotuak daude. Eraikin kaskar eta salbuetsitako eraikinen adibideak daude, bai zibilak eta bai eklesiastikoak. Komentu multzo berezi bat dago: Santa Kruz komentua, XVI.mendetik eraikinaren parte gehiena mantentzen du, klaustro monakala eta eliza. Komentuzko eraikin bakarra izan zen eta eraikin bakarra da. Elizaren fatxada Vitoria-Gasteizko Errenazimendu egitura monumentalaren adibide hoberenetariko da.

Euskal Autonomi Erkidegoan lau dira Vitoria-Gasteizko hirigune historikoan dauden jauregi-arkitektura errenazentistaren adibide nagusiak: Montehermoso, Bendaña, Eskoriatza-Eskibel eta Goiuriko jauregiak. Guztiak salbuetsiak eta erdi aroko zenbait lursail edo orubeen batura dira, Montehermoso eta Eskoriatza-Eskibel jauregiak lorategi itxi bat daukatela gehitu behar zaio. XVI.mendearen lehenengo zatian eraiki ziren, ez bakarrik garai hartako arkitektura eta plastikozko lagin bikainak baizik eta aro berezi bat, hiriaren benetako Urre Aroa.

Salbuespenezko multzo honetaz aparte, Gune historikoan errenazimendu arkitektonikoaren eredu asko daude, etxeetako fatxadetan eta bestelako arkitektura piezatan, azpimarratuz:

- Arabako Jauregia (Errementari kalea, 24-26)



- Araba-Belasko Etxe jauregia (Zapatari kalea, 101)

Maturana-Berastegi Jauregi Etxearen kasuan (Hedegile kalea, 141), eraikina erdi-salbuetsita dago, balio altuko lorategi batekin, abandonatze egoeran aurkitzen dena.

XVII eta XVIII mendeetatik, Barrokoaren estiloa jarraituz, beste egoitza eleganteak bizirik iraundu dute, batzuk bereziak bere tamaina, egitura eta ezaugarriengatik:

- Marques de Alamedako etxea (Erremertería kalea, 27), azken barrokoari buruzko arkitektura nagusiko adibidea, bere ondare elementuez gain jatorrizko barne egitura ere kontserbatzen du
- Gobeo-Gevara-San Juan familien Jauregi etxea (Antzinako Arkeologia Museoa, Hedegile kalea 116)
- Gobeo Jauregia (Pintore kalea, 68)

Araba-Belaskotarren Jauregi Etxera (Zapatari kalea 101) aipamen berezi bat egin behar zaio bere abandonatze egoeragatik. Tamaina handiko elementua da, kanpoko eraikina eta lorategiarekin. Eraikina hiriaren historiara oso lotuta dago bere antzinako funtzioengatik (Arte Ederretako Akademia, Maisuen Eskola Normala...). Lursail okupatua, bere egitura eta zenbait aspektu formal babestea merezi dute.

Beste alde batetik, Hirigune historikoa erlijiozko arkitektura garaiko seinaleak kontserbatzen ditu, erdi aroko jatorria daukaten tenpluak alde batera utzita: San Pedro de Osmakapera (pintore kalea, 24) adibidez apezpikua jaio zen tokian eraiki zen. San Bizente de Paul 2 kalean Antzinako Hospizioa eraiki zen, XVII.mendeko obra da eta XVIII.mendeko berriztatzeak eta eranskinak izan zituen eta bere fatxada klasizista bereziki azpimarragarria da.

o **Garai neoklasikoa eta XIX.mendea**

XVIII.mende amaieran erdi aroko jatorria daukan hiria zabalgunek bat izan zuen Hegoalderantz bi eraikin bereziki: Espainiako Plaza eta Arkupeen multzoa. 1984.urtetik Monumentu bezala deklaratu dira eta babes maila berezia izaten jarraitzea beharrezkoa suposatzen du.

Hirigune historikoaren barruan beste eraikin batzuk altxatu ziren, bai eklesiastikoak eta bai zibilak. Lehenengo kasuan aipatu beharra dago San Prudentzio Kapera, Antzinako umezurtz-etxearen alboan, San Bizente Paul kalean.

XIX.mendean zehar hirirako garrantzia zeukaten zenbait eraikuntza eraikitzen hasi ziren, ez bakarrik egiturazko eta forma balioagatik baizik eta bere balio historikoagatik:

- Antzinako Marrazki Akademia (Eskola eta San Frantzisko Javier kaleak) eta Antzinako Arte eta Ofizioen Eskola (Eskola 10 kalea). 1830.urteko lehenengo blokean, XVIII.mendean sortutako akademia kokatzeko eraikina egin zen. Interes historikoa dauka eraiki zenetik gaur egun arte existitu den tokiko izaera daukan akademia bakarra delako, independentzia gerra iraundu zuen



bitartean izan ezik. Alboan eta haien artean komunikatuak, bigarren eraikin bat dauka, 1889.urtean eraikita, Arte eta Ofizio Eskola izatera pasa zenean eraiki zen (gaur egun Antzinako kontserbatorio bezala ezaguna).

- Foru Aldundiko Jauregi Etxea (Probintziako Plaza). XIX.mendean zehar eraiki zen. Gaur egungo Gobernuaren Foru Aldundi xedea da. Bere sailkapen historikoagatik eta korte klasikoko egitura.
- Antzinako Apaizgaitegi Kontziliar (Frai Zakarias Martinez 9 kalea). Azpimarratu behar dugu patioan kontserbatzen duen Antzinako Santa Maria Ospitalearen atari errenazentista baten sarbidea txertatua daukala.
- Halaber, Farolen Museoa (zapataria kalea, 35). XIX.mende amaierako eraikuntza bat da eta Farolen Arrosarioaren piezak gordetzeko egin zen. XX.mendean museoa bihurtu zen. Estatu mailara ia bakarria izateagatik eta gordetzen duen pieza multzoagatik

Ertaineko babes maila mantendu behar duten XIX eta XX. mendeetako beste eraikinak:

- Antzinako ikastetxe normala (Frai Zakarias Martinez kalea, 3)
- Antzinako ur biltegia (gaur egun Montehermoso Jauregiari lotua)
- Santa Maria parrokia etxea (Aiztogile kalea, 85)

Gorte historizista neogotikoa Santa Maria parrokia da. Aiztogile 85 kalean kokatuta dago, Diaz de Tolosanaren obra da, hiriaren bestelako eraikin historizisten autorearen dela. Bere babes berezia mantendu behar da.

Vitoria-Gasteizko Gune Historikoan, beste espazio ireki edo plazak azpimarratu beharko lirateke beraien berezitasunengatik erdi aroko esparruan, bere ezaugarri formalengatik:

- **Andre Maria Zuriaren Plaza.** Begiratokiak enparantzan dauden elementu nabarmengarriak dira, eraikuntzen altuera eta fatxaden egitura ere deigarriak dira. Gasteizko Batailaren monumentua, Udalak lehenengo mendeurrena ospatzeko aukeratu zuen monumentua izan zen eta hiriaren ardatz zentrolean kokatu zena. Hortik aurrera, hiriak identifikatzen duen sinbolo bat da, bere esanahiagatik eta bere obra kalitateagatik.
- **San Migelen Balkoi korritua:** Andre Mari zuriaren plazara irekitzen den espazioa, San Migel elizaren ataritik eta arkupeetatik. Andre Maria Zuriaren irudi gotikoa bere horma-hobian dago (XIV.mendekoa), hiriaren patroia nagusia da. Hiriaren toki ospetsuena da eta hiriaren ospakizun guztiak egiten dira, jai nagusien hasiera eta amaiera barne.
- **Aihotz Plaza.** San Migel eliza, arkupeen atzeko partea, Goiuri jauregia eta harpeen artean dagoen espazio publikoa.



- **Probintzia Plaza.** Diputazio Jauregitik irekitzen da Diputazio eta Jesusen Zerbitzarien kaleetara.
- **Santa Maria Plaza,**Gaur egun partzialki itxita dago Eliza nagusiaren obregatik.
- **Brulleria Plaza.** Erdi aroko espazio bat da bertan dauden eraikuntza multzoengatik: Santa Maria katedrala, Antzinako Arkeologi Museoa, Portalea, Matuarana-Berastegitarren Jauregi-Etxea, Antzinako apaiztegia eta Andatarren dorretxea.

Eguneraketa baten beharra azpimarratzen da, 2010.urteetik hona hiri esparruan eman diren aldaketengatik, azken txosten sektorialen data (IEEB 2010 Espedientea, AFaren Kultura Sailean 023, 2010.urteko azaroak 15 eta Eusko Jaurlaritzaren Ondare Kulturaleko zuzendariaren txostena, 2008ko apirilekoa).

BEPBk planteatutako babesan, Eusko Jaurlaritzak planteatutakoarekin adostasun bat dago, hala ere, BEPBk zenbait elementu berezietara babes handiago bat eskatzen du. Adibidez: Montehermoso Jauregia, Villasuso Jauregia, San Idefonso kapera, Portalea, Doña Otxanda Dorrea, Machete Plaza, Santa Maria Plaza, Andre Maria Zuriaren Plaza eta San Migel Balkoia.

Plano sozialean hiri espazio honen indartzea egiten ari da, eta jarraitu behar da ondare multzoaren balioan jartzearekin, ez bakarrik turismora begira baizik eta tokiko hiritarrentzako, honela gehiago baloratuko da bere historia.

11.3.2 ERAIKITAKO ONDAREA

Zabalgunea XIX

Antzinako hiri muinotik lautadara salto egin zuen. XVIII.mendetik XIX.mendera bere zabalgunea hasi zuen Hegoalderantz Espainiako Plaza eta Arkupeen bitartez. Honela hirigintza eta arkitektoniko ikuspuntutik hasiera eman zitzaion tarte berri batera.

XIX.mendeko bigarren zatian hegoaldean, Madrid-Irun trenbidea hiriaren hirigintza aurrerapena eta hedapena baimendu zuen, antzinako garaiko komentuen lurraldeak okupatuz. Posta , Prado eta Parke de La Floridako kaleetatik hasita ibilbide berri bat garatzen da. Zabalgune hau Bilbo, Donostia eta Iruña aurrekoa da.

Antzinako hedapen hau garaiaren eraikuntzak nahiko ondo mantentzen ditu, lau eta bost altuerako solairuak nabarmentzen dira eta fatxada nagusietan ikusleku ugari daude. Ondorioz, modu berezian uharte, lerrokatze eta hurrengo kaleen aspektu orokorrak zaindu eta babestea beharrezkoa da: Prado, Posta, San Antonio, Foruak.

Lehenengo aurrerapenean, hiriaren antolamendu planifikazio berrian Dato kalea egiterakoan hasi zen. Hiriaren erdiguneko bide nagusienetakoa da, Espainiako plaza eta trenbidearen artean. Zonaldean, fatxaden lerroa, eraikuntzen altuera eta ikuslekuak mantentzea eta errespetatzea beharrezkoa dela uste dugu, antzinako hiri honen irudi bereizgarri bat delako. Beste alde batetik, trenbidearen eraikuntzari dagokionez, egitura eta forma ezaugarriengatik bereziki ere babestu behar dela uste dugu, hiriaren arkitektura adibide onak dira.



Espainia Plazaren Ekialdean, aurrerapenaren plangintza berrian, XIX.mendeko lehenengo tertzioan bi eraikuntza deigarriak dira eta **babes maila berezia** behar dute:

- Korreos eta Telegrafo Eraikuntza (Posta kalea, 9), neovasca eskualdeko arkitekturaren adibide deigarrietariko bat.
- Espainiako Bankuaren antzinako eraikina (Lehendakari Agirre kalea, 2), Silvestre Perez Teatro Berriaren gainean eraikita, fatxadaren konposizioa eta Gorte klasikoko beste elementuak mantentzen ditu.

Foru Plaza; Foru, Independentzia eta Posta kaleen artean dago, 1975.urtean egindako proposamen batetik hasita eta antzinako Azoka Plaza lurreratu ondoren. Peña Ganchegui eta Chillida hiriko espazio berri hau diseinatu zuten. Bertan Chillidak, Foruei egindako ohoresku eskultura dago.

Floridako Parkea XIX.mendeko zabalgunearen muga batean kokatua dago. Espainian kontserbatzen den XIX.mendeko lorategi publikoetako bat da. Bere eraikuntza bi faseetan garatzen da: 1820.urteetik diseinu neoklasiko batekin eta 1855.urteetik jarraibide erromaniko historikoekin, Santa Klara komentuen lurraldearen gainean. Gainera, Madrilgo Errege Jauregitik hartuak barnean errege godoen 4 estatua zituen. XIX.mende amaierako kiosko bat mantentzen du, burdinazko arkitekturaren hiriko lehenengo seinaleetako bat izanik. Diseinu erromanikoa lorategi botanikoan eragin handia izan zuen, espezieen aukeraketa zaindua izanez. Gaur egun 95 zuhaitz espezie daude eta 79 zuhaixka.

La Florida Parkearen sarreran, Euskal Parlamentuaren eraikuntza dago, baina 1853.urtean Vitoria-Gasteizko institutua eraiki zen. Modu berezian babestu behar dela uste dugu nahiz eta XX.mendeko 80.urteetako zaharberritzearen ondorioz kanpoko forma bakarrik mantendu. Interes arkitektonikoa kontserbatzen duen eraikina da.

Florida Parkea eta Euskal Parlamentuaren aurrealdean Katedral berria eraiki da, XX.mendeko lehenengo hamarkadetan eraikitzen hasitako eraikin neogotikoa da. Barruan Eleiz Museoa dago.

Monseñor Cadena eta Eleta kaleetan, Katedral Berriaren alboan eta Florida Parkearen aurrean, Goya Gasolindegia kokatuta dago. XX.mendekoa da eta 30.urteetan eraikuntzetan forma eta material berriak proposatu zituen. 1995.urteetik **Ondasun Inbentariatuaren** kalifikazioa dauka (433). XX.mendeko arkitekturaren irudi berria da, eta San Antonio 30,32 eta 34 kalearen etxebizitza eraikina da.

Ramon y Cajal kalean eta La Florida Parkearen aurrealdean, Carmelitasen Nobizatua eraiki zen. XIX.mendeko 80.hamarkadan eraiki zen, Iñiguez de Betolaza arkitektoa hirian egindako elementu neogotiko bat izan zen. Arkitekto berak Marques de Urquijo kalean, hiriko lursail handiengan Bisitazio monasterioa eraiki zuen.

Jeneral Loma Plaza, gaur egun oinezkoentzako, Andra Mari Zuria Plazaren eta La Florida Parkearen arteko lotura da. Erdian Agustin Ibarrolako bi eskultura daude. Enparantzan XVII.mendeko, Purisima Concepcion komentuen eliza irekitzen da (San Antonio



izenarekin ezagunagoa da). Bere barruan balio handiko pieza artistikoak dauzka eta bere fatxada Vitoria-Gasteizko barrokoa ikusteko adibide on bat da.

Magdalenako komentua, orain dela urte asko Brigida erlijio-ordenaz okupatua dago eta Vicente Goicoechea kalean dago. Interes handia dauka Justo Antonio de Olaguibel arkitektoak diseinatutako elizaren fatxada mantentzen duelako. XX. mendean katedral berriaren obrak hasi zirenean bere garrantzia kontutan hartu zen.

Vicente Goicoechea kalean eta komentuaren alboan, Bonilla tailerraren etxea eraiki da, Vitoria-Gasteizko hiriaren arkitektura modernoaren adibide bat da. Babes berezia proposatzen dugu. 1994. urtetik **Inbentariatutako Ondasuna** da (420 zk).

Biltzar Nagusien eraikuntza, Prado eta Vicente Goicoechea kaleen artean kokatuta dago. 1868. urtekoa da eta XX. mendeko 80. hamarkadan zaharberritu zen, bere interes arkitektonikoa mantentzen du.

Arte eta Ofizio Eskola, eskualdeko gorteko adibide bat da, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan Diaz Tolosanak egindako obra izan zen eta Conde De Peñaflores plazan kokatuta dago.

Zulueta del Paseo Jauregia, XX. mendeko lehenengo urteetan Iñiguez de Betolaza arkitektoak egindako obra da. Duela gutxi arte, Sancho jakintsua Fundazioaren egoitza izan zen, horretarako 1990. hamarkadan egokitua izan zen. Paseo de la Sendan integratutako lorategi publiko bat dauka.

Frai Frantzisko ibilbidera heltzeko Florida eta Senda ibilbidetik heltzen da. Aldi berean, La Florida paseotik, El Prado eta Cervantes paseotatik jarraituz Armentiarra heltzen da. Hiriaren ibilbide berde garrantzitsuenetarikoa dira. Frai Frantzisko ibilbidearen alde bietan eskualdeko eraikuntzak eta historia daukaten eraikuntzak daude, haien artean azpimarragarriak dira: Arte Ederretako Museoa (Agustin Jauregia, 2003. urtetik BCC, 458), Apraiz eta Luque, 1912. urteko Gorte neobarrokoko jauregitxo bat eta aurrean Ajuria Enea, Autonomia-Erkidegoko Lehendakaritza. 80. hamarkadaren hasieran bere funtzio berrirako birmoldatu zen, hala ere, ahal den neurrian jatorrizko egitura eta eskualdeko itxura mantentzen du.

Frai Frantzisko ibilbideak XX. mendeko kalitatezko eraikuntza asko mantentzen ditu: Zuloaga etxea, Las Jaquecas etxea, Villa Sofia, Villa María, Villa Vergara, Vera Cruz ikastetxea, Famili Sakratuaren parrokia, Arte Ederretako Museoa eta Ajuria Enea. Bere inguruneagatik eta bere mantentze onagatik multzo bikaina dela uste dugu.

Famili Sakratuaren parrokia, 1905. urteko Iñiguez de Betolaza obra da. Neobarroko eta neobizantin forma bereziak dauzka. XX. mendean Zabalgune berde honen biztanleentzako egin zen.

Lorategi hiria, Vitoria-Gasteizko ibilbide berdea osatzen du. XX. mendearen hasierako hiria da, Nieves Cano, Bizkaia, Araba, Navarra, Gipuzkoa eta Aguirre Miramón kaleen eta Zapardiel ibaiaren arteko urbanizazioa. 1924. urtean Lopez de Uralde, eskualde eta neovasco estiloko berrogei txalet diseinatu zituen, landatik hurbil bizi nahi diren maila



ertaineko biztanleentzako egindako auzoa zen. Bere kontserbazioa ezinbestekoa dela uste dugu.

Modu berean, Elvira Zulueta kalean, Prado Parkearen aurrean dagoena, XX.mendearen bigarren hamarkadan eskualdeko korte neovascoko etxebizitzak egin ziren.

Auzoak

Arriagako atarian, Santa Isabel kanposantuaz okupatutako espazioa gailentzen du, bere baterako izaeragatik, antzinako hilobi-monumentu eta garai eta estilo ezberdineko apaingarriengatik: neoklasizismoa, historizismoa, modernismoa eta arrazionalismoa. Bere hilobi-monumentuak 1820.urtekoak dira, bere behin-betiko antolamendua 1850.urtekoa da eta Santa Isabel kaperari buruzko antolamendu geometriko jarraibide arrazionaleri erantzuten die. Bere lauki-sareko solairua, angelu zuzenean zeharkatutako kaleak eta zabaltzeko aukera izan zuena, Espainian eredugarria izan zen.

Arriagako atarian, XVI eta XVII mendeko Arriagako San Bizente parrokia gailentzen da, bereziki bere dorreagatik, XVIII.mendeko 80.hamarkadan Justo Antonio de Olaguíbelen obra izan zen. Eraikin hau eredu bezala hartu zen probintziako beste obrentzako, Antoñana eta Alegria besteak beste.

Arriaga parkearen barruan, hiriko handiena, San Juan de Arriagako basiliza dago, Arriaga Kofradiako lehendakarien egoitza gogoratzen duen mugarri bat da. Bere egungo irudia 1945.urtean Guineak egindako birmoldaketa da, hala ere, bere izaera historikoagatik kontuan hartzea merezi du.

San Martin Auzoan, Elizbarrutiko apaiztegia osatzen duten eraikin multzoak eta gunek berdeak azpimarratzen ditu (Beato Tomás de Zumárraga kalea, 35), 1930.urteko obra da. Estilo neogotikoko historizista multzo handia da, Vitoria-Gasteizko lehenengo eraikina hormigoi armatuaz eginda dagoena da, egurrezko elementurik gabe.

Auzo berean San Martin parrokia eraiki da, eta antzinako San Martin de Abendañoko basiliza erantsita dauka. Erdi aroko eraikina da erreforma handiarekin, gaur egun erdi aroko garaiko irudien aztarnak kontserbatzen ditu hormetan, honengatik kalifikazio eta kontuan hartzea proposatzen dugu.

Auzo berean San Martin parrokia eraiki da, eta antzinako San Martin de Abendañoko basiliza erantsita dauka. Erdi aroko eraikina da erreforma handiarekin, gaur egun erdi aroko garaiko irudien aztarnak kontserbatzen ditu hormetan.

Azkenik, erlijiozko arkitektura garaikidearen hiru eredu nabarmendu nahi ditugu. Koroatze auzoan, koroatze Andra Mariako parrokia, 1960.urtean Miguel Fisac proiektuaz eraiki zen. Arkitektura organikoaren hiriaren adibiderik zaharrena da. Aingeruen Andra Mari parrokia, Gasteiz etorbideko zonaldean, garai berdineko da eta Carvajal eta Garcia de Paredes-en obra da. Azkenik, San Frantzisko parrokia, Zaramaga auzoaren erdian dagoena, 1970.urtekoa da eta Peña Gancheteguiz diseinatua.



Hiru eraikin hauetatik bik Ondare Arkitektonikoaren Erregistro Modernoan inbentariatuak daude, DoCoMoMo fundazioak eginda. Fundazio honek arkitekturaren Mugimendu berriaren dokumentazio eta difuzioari bideratuta dago.

| DOCOMOMO Ibérico erregistrotan agertzen diren Vitoria-Gasteizko eraikinak | | | |
|---------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|-----------------------------------------------|------|
| Lanaren izena | Egilea | Helbidea | Data |
| Zerbitzu geltokia eta garajea | José Luis López de Uralde y Francisco Alonso Martos | Monseñor Cadena eta Eleta kalea 2 | 1935 |
| Ama Birjinaren Eliza | Javier Carvajal y J.M. García De Paredes | Bastiturri kalea 4 | 1960 |
| Koroatze Andre Mariaren parrokia | Miguel Fisac y Luis María Sánchez | Eulogio Serdán kalea 9 | 1960 |
| KAS | Josep María Fargas y Enrique Tous | Gamarra enparantza 4 | 1965 |
| Etxebizitza eraikina | José Luis López de Uralde | Probintzia plaza 1-3 Vicente Goikoetxea 10 | 1945 |
| Aranzabal Etxea | Fernando Redón | Cervantes ibilbidea 18 | 1958 |
| Etxebizitza multzoa | Jesús Guinea | San Antonio kalea 30-34 | 1939 |
| Etxebizitza eraikina | Jesús Guinea y Emilio Apraiz | Santiago kalea 15 eta José Mardones kalea 17 | 1942 |
| Etxebizitza eraikina | Ignacio Lasquibar | Florida kalea 55 eta Pio XII kalea 4 | 1961 |
| Etxebizitza eraikina | Enrique Marimón y Ramón de Azpiazu | Senda ibilbidea | 1964 |
| Cegasa bulegoa | Adrián Lasquibar | Artapadura kalea 11, Gamarra | 1964 |

Liburuki honen I ERANSKINEAN, taula ezberdinetan Vitoria-Gasteizen eraikitako Ondarea agertzen da:

- 1 Taula - I Maila: Eusko Jaurlaritzak kalifikatutako edo inbentariatutako eraikinak edo elementuak.
- 2 Taula - Ondare Historiko-Artistiko. II Maila: Eusko Jaurlaritzak eta HAPOak baloratzen dituen udalerriko eta tokiko babeseko eraikin edo elementuak.
- 3 Taula - Ondare Historiko-Artistiko. II Maila: Egungo HAPOak baloratutako tokiko edo udalerriko babesa daukaten eraikin edo elementuak.
- 4 Taula – Ondare Industrial

11.3.3 TOKIKO ERAKUNDE TXIKIEN ONDAREA

Tokiko erakunde honen analisisian datu arkitektonikoak eta arkeologikoak kontutan hartzen dira. **Edozein kasuan, eliza guztiak ondareko babesen bat daukatela.**



- **Aberasturi:**

Babesteko ingurune naturala eta nekazaritzakoa, Orgaci iturburua eta haritzen basoa azpimarratzen ditugu, azken hau Villafrancarekin partekatzen dugu.

Eraikitako ondarea familia bakarreko etxe ugari osatuta dago, batzuk berriak, beste batzuk berrituak eta beste batzuk zaharrak. Aberasturiko populazioa azken urteotan hazi da, baina hala ere, ohiko ingurunean ez dira aldaketa ugariak eman. Arkitektura zibilaren barruan Armarridun etxea nabarmentzen da, Diaz de Arkaia familiarena. Hala ere, eraikin nabarmenena San Esteban tenplua da, gurtza dauka. Kanpoan dorre lirain eta arkupe neoklasiko bat zutabe joniarrekin azpimarragarriak dira. Bai arkupea eta bai barneko kaperak J. A. de Olaguíbelek diseinatu zituen, bere jarduketan barruan landa elizetan. Tenplu honetan arabar neoklasizismoko maisu baten planoak gordetzen dira. Udalerriaren tenplu gehienetan bezala elizaren sarbidea eta bataiarria erdi arokoak dira. Tenpluaren erretaula kalitate artistikoagatik oso garrantzitsua da, probintziako plateresko espezie onenak.

Elementu etnografikoa bezala bola-jokoa azpimarratzen dugu.

Aberasturiko multzoa kontserbatu beharreko balio ertaina dauka, bere ingurune naturalarekin batera.

Gainera San Esteban Elizak Eusko Jaurlaritzak monumentua deklaratu du (488 Fitxa), eta Balizko arkeologia gunea erakundetik (B) (146). Aldi berean, **Diaz de Arkaien Jauregi** etxea babesteko beste higiezin bat da, Eusko Jaurlaritzaren ondasun higiezinaren zerrendan proposatuta dago (487 fitxa).

Eusko Jaurlaritzak babeserako proposatutako beste higiezinak:

- Aberasturi Baserria (588 Fitxa)
- Aberasturi geltokia (513 Fitxa)

Beste datu arkeologikoak:

- Santa Justa eta Santa Rufina baselizak, BGA, 147
- San Juan de Uriarte herrixkaeta tenplua, BAG 148. Jenderik bizi ez zen erdi aroko etapa.
- San Lorenzo Baseliza BAG, 149
- Santiago Baseliza BAG, 150
- Orgaciko Brontze aroaren asentamendua. Ez babesa eta ez proposamena.

- **Abetxuko:**

Vitoria-Gasteizko hirigunean, 1958.urtetik langile-auzo bezala garatu zena. Ordutik aurrera solairu bakarreko etxe merkeak, erdiko enparantza eta San Jose langile parrokia daude. Azken urteotan, eremuaren kanpoaldean familia bakarreko etxeak eta elkarri



atxikiak agertzen dira. Bere balio historiko, artistiko eta jainkozaletasuna daukaten elementu bakarrak: **Via Crucis, San Miguel tenpluaren Santo kristo eta eliza**. Higiezin hau beste eraikuntzetatik kanpo mantendu behar da, bere lorategiarekin batera gaur egun dagoen bezala.

Naturaren ikuspuntutik, Zadorra ibaiaren ertz garbi eta zuhaiztiak Vitoria-Gasteizko Gerriko Berdearen parte osatzen dute.

San Migel Tenplua garrantzitsua da bere hondakin erromanikoak, erretaula handia eta Santo kristoa gordetzeagatik, Abetxuko bezala ezaguna eta XVI.mendekoa eta Vitorian ospe handikoa. Higiezin hau Eusko Jaurlaritzak monumento deklaratzeko proposatu du (490 Fitxa), eta Balizko Arkeologia Gunea (85).

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak etorkizuneko babeserako.

- Iringilea, biltegi zaharrak eta bulegoak (517 Fitxa)
- **Abetxuko zubia (558 Fitxa) Zadorra ibaiaren arroko zubien MonumentuMultzoen barruan (222/2017 Dekretua).**
- Baserria (571 Fitxa)

- **Amarita:**

Landa nukleo txikia, udalerraren iparraldean eta Uribarri urmaeletik gertu. Landatzeko finka eta elementu ezberdinak eduki barik bezala mantentzen da. Toki bitxian kokatua, goragune baten gainean, elementurik garrantzitsuena eta deigarriena parrokiaren eraikina da, San Pedro Apostoluri dedikatua. Solairu bakarreko etxea da adreiluz eta zuraz eginda. Tenplua 1801.urtean eraiki zen. Erretaula neoklasikoa da.

Elizatik gertu baserri zahar eta bikain bat ikusten da, gaur egun zaratsua eta belarraz estalita. Berreskurazina.

Gainerako herria etxeak eta nekazaritzako eranskinak dira, nahiko bananduak. Eskola zaharreko eraikina gaur egungo Zentro Soziala da.

Lurzoru urbanizagarri handia existitzen da bere bizitegi hedakuntzarako. Nukleoaren neurriak eta ingurunea aldatuko lukeena.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak etorkizuneko babeserako:

- San Pedro Apostolaren eliza (474 Fitxa), eta arkeologi eremua 95.
- Amarita Errota (547 Fitxa)
- **Zadorra ibaiaren arroko zubien Monumento Multzoen barruan (222/2017 Dekretua)**

Datu arkeologikoak:

- Arriluzeko Nuestra Señora baseliza, BAG 94



- **Andollu:**

Vitoria-Gasteizko ekialdean kokatutako landa biztanleri txikia. Lurzoru emankorrez inguratuta dago eta bere populatzea kontzentratua. Bere baserriaren zati handiena landa izaerakoa da, eremuaren zereginekin egokiak diren biltegiekin eta eranskinekin.

Eraikin azpimarragarriena Santa katalina parrokia da, erdi arokoa eta bere lantegian erromanikoa, Ama Birjina eta bataiarriaren parte bat mantentzen duena. Elizak ez dauka dorrea baina lurraldearen zelairik azpimarragarriena dauka.

Zaindutako nukleo bat da eta bizikleta errepidea zeharkatzen du antzinako vasconavarro trenbideaz.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak etorkizuneko babeserako:

- Santa Katalina Eliza (463 fitxa) eta BAG, 129
- Errota (542 Fitxa)
- Andollu Geltokia (515 Fitxa)

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina etorkizuneko babeserako:

- Etxea 7 (784 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Ibarako San Pedro basiliza, BAG 171
- Galbarreta Herrixka, BAG 173. Erdi aroko despopulatu nabarmena

- **Legarda:**

Vitoria-Gasteizko ipar-mendebaldean kokatutako herria da, Arrato Mendilerrotik gertu. Ingurune naturala eta egoera onean dauden etxeak dauka. Orokorrean herria ondo zainduta dago eta lorategi bat dauka elizaren aurreko aldean; hala ere, eraikinaren aurrealdea txatartegi bat dirudi.

San Andres eliza historikoki eraikin garrantzitsuena da. Erdi aroko eraikin bat da (XIII. mendekoa), beranduago aldaketak eta gehikuntzak izan zituen. Jarduketa nagusia XVII. mendean izan zen. Solairua luzea eta goikoburua zuzena dauka. Arkuak eta korua forma angelu zuzena duten zutabeen gainean eraikita daude. Kapera eta sakristia XVI. mendean eraiki ziren. Erdi aroko bataiarria eta momentu horretan zegoen dorrea mantentzen da. **Herriaren elementu bikainena eta bakarra San Andres de Legarda dorrea da, dorre erromanikoa kontsideratzen da, BAG 62.**

Legardaren Mendebaldean guruztoki bat dago, San Anton guruztokia.

Datu arkeologikoak:

- San Roke Basiliza, BAG 59



- San Antonio Abad Baseliza, BAG 60
- San Antonio de los Arrieros Baseliza, BAG 61
- Purísima Concepción Baseliza, BAG 63

- **Lermanda:**

Vitoria-Gasteiz Mendebaldeko herri txikia da, Jundizko industrialdean sartuta aurkitzen dugu. Honen eraginez bere landa izaera, guztiz aldatu da.

Lermandan, arkitektonikaren ikuspuntutik deigarria den bakarra bere tamaina handiagatik Donostiako parrokia da. Gainontzeko etxeetatik nabarmentzen den elementua da, herritik isolatuta dago ingurune berde batekin. Bere egituragatik gotorleku bat dirudi, kanpoaldean kontrahorma bat edukitzeaz gain poligono formako dorrezar bat dauka, gorputzari erantsitako teilaz estalita. Kanpoaldean harlanduzko harriz egindako elementu bakarra kanpai-horma ederra da, kanpaiantzako hiru lekuekin, XIX.mendekoa. Barrualdean, gurutze latineko solairu bat dago, erdi aroko bataiarria eta erretaula barrokoak. Gaur egun Eliz Museoa dagoen eliza honen higiezin pieza Alabaster polikromatu berpiztuaren eskultura bitxi bat da. BAG 197.

Lermanda, elizaren ondoan, Legardagutxi antzinako errota gogorarazten duen iturri bat dago, eta Gasteiztar guztiengandik ezaguna.

Datu arkeologikoak:

- Legardagutxiko Errota MM 198 proposatua. Berreskurapena proposatzen da.
- **San Martin de Legardagutxiko basiliza eta populatu gabeko lursaila.** MM 199 zk. bezala proposatua. 1993.urteko zulaketa ondoren, aurkitu ziren horma aztarnak Arrato Sistemako araztegiko lorategian kontserbatzen dira. Gainontzeko egiturak eta nekropoliaren parte bat obren ondoren desagertu ziren. **Bere babesaz gain espazioaren azalpen seinale bat eskatzen da.**

- **Lopidana:**

Hiriburutik gertu dagoen herria da, Ipar-Ekialdean, mendebaldeko lautadan. Landetxeak bere eranskinekin, etxe berriak eta elizaren eraikuntza, nukleoaren ezinbesteko eraikuntzak dira. Balizko arkeologia gunea deklaratu da, 80 zk.

Historikoki Lopidana Duque del Infantado kongregazioaren barruan egon zen.

Artearen ikuspuntutik tenplua da herriko elementurik interesgarriena, erromanikotik gotikorako trantsizioa ikus daitekeelako. Ataria nabarmentzen da, apur bat zorrotza eta irudi geometriko eta lorez apaindutako zutabe batzuen gainean dagoena. Leihateak, arkiolta zorrotzekin, landare, animalia eta giza dekorazioaz ere nabarmenak dira.



- **Lubiano:**

Lurraldearen ipar-ekialdean dago, Uribarri-Ganboako urmaeletik gertu. Nekazal herri txiki bat da, ondo zainduta eta landetxeak dituen, bere fatxada gehienak entokatuak eta luzituak. Elementu deigarriena erdi aroko egitura mantentzen duen Jaiokundeko Eliza da. Solairu luze bat dauka, goiko parte zuzen batekin, ganga zorrotzekin eta nerbio sinplekoa. Atarian eta leihoan garai gotikoa ikusten da eta egitura monumentala. XVIII.mendeak eraikinari lerro nagusiak jasan zituen. Ondare deigarriena XVIII.mendeko prozesio-gurutze eder bat da. Babes arkeologikoa dauka, BAG 114.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina etorkizuneko babeserako:

- Errota(545 Fitxa)
- Iturria-ikuztegia (777 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- San Juan Baseliza, BAG 115
- El Cerrao Etxola-hondo, BPAG 249. Brontze aroko asentamendua
- Carracona Etxola-Hondoa, BPAG 250. Brontze arokoa
- Trerrobles Etxola-Hondoa, BPAG258. Brontze arokoa
- Olatxo Etxola-Hondoa, BPAG 259. Brontze arokoa
- Txitxiburu Etxola-Hondoa, BPAG, 260 Brontze arokoa

- **Mandojana:**

Vitoria-Gasteizko ipar-ekialdean kokatutako herria da, Arrato Menditik gertu, landa eta ingurune naturalean. Herri txiki bat da eta bere etxeak luzetara daude, San Esteban parrokiatik aurrera. Txaletak landa etxeekin daude, eta arkitektura zibilean jauretze bat ezkutuarekin nabarmentzen da. Interes historiko-artistiko gehiago duen eraikina eliza da, kontserbazio egoera ona da Arabako Foru Aldundiak egindako jarduketaren ondorioz, 2000 eta 2001 urte bitartean.

San Esteban elizaren (Arkeologi gunea 55) barruan bere jatorrizko egitura erromanikoa mantentzen da. Hasiera batean nabe bakar bat zeukan, goiko parte lau eta dorre indartsuarekin. Gaur egun solairua gurutze latinekoa da eta presbiterioaren alboan erantsitako kapera birekin. Hala ere, tenpluaren eremu nagusia kanoi-ganga batez estaltzen da, kapitel erromanikoen gainean, berrikuntzak izan arren. XVI.mendean ezinbesteko aldaketak egin ziren tenplu honetan. Interes artistiko handiko elementua Don Francisco de Mandojana eta Zarate hilobia da, presbiterioan arku irekiko otoizgilea. Noble baten ehorzketa da, Calatrava ordenako zalduna, eta Don Francisco de Gamarrako



hilobi monumentuaren antz handia du, Gamarra Nagusiko parrokian dagoena. XVII.mendeko hilobi bi daude Vitoria-Gasteizko tokiko erakundeetan.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina etorkizuneko babeserako:

- San Esteban Eliza (160 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santa Marina Baseliza, BAG 54

• **Margarita:**

Vitoria-Gasteizko Mendebaldean kokatutako herria, Jundizko industrialdetik gertu dago.

Historikoki Margarita Duque del Infantado kongregazioaren barruan egon zen.

Herri hau egitura industrial berrien erdiko irla bat da. Bere eliza herriaren gainontzeko eraikinak baino altuagoa da, bere ingurunean ezin dira eraikinak jarri. Margaritako etxe motak zaharrak eta modernoak dira, ondo zainduak eta harmonian. Bere arkitektura zibilean Kortazarreko Dorretxea nabarmentzen da, altuera biko lau angeluko eraikuntza bat, aldaketa handiak izan dituen bere erabileragatik eta Urbina eta Lazarragako Etxea, etxe handia da ohiko landetxe tipologikoa.

Santo Tomas Apostoluaren parrokia XVI.mendean eraiki zen eta bere interes historiko-artistikogatik elementu bi nabarmentzen dira: XIII.mendeko bataiarri eder bat eskulturazko dekorazioarekin, gerlari bat zaldian nabarmentzen da, eta XVI.mendeko Urbina familiaren hilobi-kapera.

Herri honetan, Astorga eta Bordeleko galtzada erromatarraren zati interesgarri bat mantentzen da, altueratik ondo ikusten dena eta Jundizko industrialdearen hedapenagatik aurretik ikerketa bat egin barik bota zena. Datu hau azpimarratzen dugu beste tarte batzuetan kontutan hartzeko, adibidez Arkaiaren kasuan.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina etorkizuneko babeserako:

- Urbina eta Lazarraga Etxea (141 Fitxa)
- Baserria (582 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Kortazardarren dorretxea, BAG 196
- Landabarria aztarnategia/ Ubera (Arrato 24) babes barik.

• **Martioda:**

Hiriburutik 8 km-tara kokatutako herria, mendebaldeko lautadan eta Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa da.



Hurtado de Mendoza familiaren lursaila da, XVIII.mendean jauregi batez inguratutako erdi aroko dorrea eraiki zen. Multzo hau herriaren eraikin garrantzitsuena da eta **gaur egun Monumentu bezala kalifikatutako Ondasun kulturala da.**

San Joan Ebanjelariaren eliza familia honen jabetasunaren menpean egon zen. Gaur egun ez dauka gurtzarik. XV.mendetik aurrera eraikitako tenplua da, bertan jabeen heraldia espazioa hartzen zuen. Eliz Museoan dagoen interes artistikoko pieza, gotiko garaiko Ama birjina umearekin pieza da. Arkeologi Gune bezala proposatuta dago, MM 41.

Martiodako Ondare Erlijiosoan, Urrialdoko Andra Mari basiliza azterna interesgarrienak daude. Goiko parte zuzeneko tenplu protagonikoa izan zen. Gaur egun aztarnen artean hurrengoak kontserbatzen dira: atari ederra eta leihateak. Ataria puntazkoa da, leihateak ezaugarri erromatarrik daukate eta xakeztatutako dekorazioa dauka.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak babesarako:

- San Joan Ebanjelariaren Eliza (137 Fitxa)
- Urrialdoko Andra Mari basiliza (510 Fitxa)
- Zubia (568 fitxa). Zadorra ibaiaren arroan dauden zubien Monumento Multzoaren barnean.
- Errota (529 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Urrialdoko Andra Mari Tenplua, BAG 39. Nabarmen multzoa.
- Hurtado de Mendoza Dorretxea, BAG 40

- **Matauko:**

Vitoria-Gasteizko Ekialdean dago eta 8km-tara kokatutako herria da. N-104 errepideak herria bitan banatzen du eta laborantza lurraldeaz inguratuta dago eta bere arkitektura gehiena landakoa da.

San Pedro Apostoluaren eliza elementu azpimarragarriena da. Eraikina batez ere XVI.mendekoa da, baina **elementurik deigarriena XIII.mendeko atari ederra** da, eskultura-multzo ederrekin, XVIII.mendean dorreak eta kaperak eraiki ziren. Erretaula nagusia aipagarria da. Balizko arkeologia gunea 118.

Matauko Santa Katalinako basiliza bat kontserbatzen du, interes artistikorik ez daukana.

Eusko Jaurlaritzak bere babesarako proposatutako higiezinak:

- Obaja Zubia (550 Fitxa)
- San Pedro Apostoluaren (135 Fitxa)
- Landa etxea (785 Fitxa)



- Gurutzadura (587 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santa Katalina Baseliza. (A), BAG 119
- Bolintxo Errota. (D), BAG 120
- Biobaya Aztarnategia. Erdi Aroko Asentamendua. PBAG
- Herritik hurbil ANIA-ko erromatar aztarnategia dago, San Martin baselizaren inguruan. Arbulo, Jungitu eta Lubianorekin komuneroa da baina Arratzua-Ubarrundiako udalerraren barruan dago.

- **Mendiguren:**

Vitoria-Gasteizko iparraldean kokatutako herria, Arakako mendien alboan.

Bere landa izaera mantentzen du eta landetxe etxeak. Higiezin nabarmenena Antiguako Amaren eliza da. Jatorriz erdi arokoa da, eta XVI.mendean eraiki zena. Dorrea eta arkupea XVIII.mendekoak dira. Aztarna gotiko nabarmenenak ataria eta leihatea dira. Barruan antzinako Andra Mari irudi bat gordetzen da, Antigua Amaren baselizan zegoena.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina babeserako:

- Jasokundeko Ama Birjinaren Eliza (134 fitxa) y PMM 88.

Datu arkeologikoak:

- Antiguako amaren baseliza, BAG 87
- Arlazako erromatar aztarnategia (Arrato-19) BAG 248. Urbanizazioak babesteko gune azpimarragarria.

- **Mendiola:**

Vitoria-Gasteiztik hurbil dagoen herria, hiriburuaren Hego-ekialdean, Olarizu mendiaren alboan. Espaloiz, espazio publikoak, oso txukun eta antolatuta dagoen multzoa. gehienak landa eraikuntzak dira, batzuk birgaituak eta beste batzuk modernoagoak, baina hala ere multzoan egokiak dira. Mota ezberdinetako etxeak daude, laborantzako etxe arruntetatik armari jauretxeraino. Eraikuntza askok adreilua eta egurra erabiltzen dute. Orokorrean Mendiolako etxeak landa arkitekturaren adibide onak dira, beraz zentzu honetan babespen bat eduki beharko luketela uste dugu.

Hala ere, **herriaren monumenturik garrantzitsuena Jasokundeko Ama Birjinaren Eliza** da. Udalerraren landa parrokia ez bezala, tenplu hau nagusiki Errenazimenduko obra bat da. Bakarrik arkupea eta dorrea XVIII.mendekoak dira. Barneko espazio osoa XVI.mendekoa da, hala ere, aurretik zeuden elementu batzuk mantentzen dira, besteak



beste gangetako nerbio ederrak. Elementurik zaharrena erdi aroko Andre Mariaren irudi polita da, barrokoko erretaula nagusian kokatuta dago.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina babeserako:

- Jasokundeko Ama Birjinaren Eliza (132 Fitxa) eta BAG 155
- Etxea 18 (131 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Kutzemendiko herrixka BAG 15. (OKK proposatua). Burdin Aroko aztarnategiak.
- Los Balconesko Asentamendua, BAG 27. Erromatar herrixka
- El Gritadero etxolaren hondakina, BAG 17. Eneolitiko–Brontzeko asentamendua.
- Mendiolako San Juan herrixka, BAG 156. Erdi Arokoa
- Olarizuko Santa Kruz basiliza, BAG 157
- Meanako Santa Maria herrixka, BAG 158. Erdi arokoa

- **Mendoza:**

Mendoza Arabako hirigunearen Mendebaldean kokatuta dago, Mendebaldeko lautadan, Badaia Mendilerroaren inguruan. Arabako toki eder bat da, historiaz eta interesezko ondare elementuez osatua dagoena.

Mendoza ez da taldekatutako multzo bat, zonalde ezberdinak daude, Mendozako bereizketa zaharra eta Mendibil izenez ezagutzen denaren ondorioa da eta XIV.medean elkartu ziren. Laña ibaia zeharkatu ondoren Mendoza Dorretxe handia eraikita dago, arabako arkitekturaren adibidea da. **Mendoza Dorretxea Ondasun kultural kalifikatua da Monumentuko kategorian.** 1994.urtean bere tipología eta antzinatasunagatik Euskal Herrian monumentuen seinalizazioa inaguratzeko aukeratu zen. Dorre hau erdi aroko dorreen adibidea da, harresiarekin, armen patioa eta omenaldi dorrearekin, batzuk gaztelu kontsideratzen dute. XIII.mendeko da, Euskal Autonomi Erkidegoko adibiderik zaharrena da. Mendozako Dorretxea interes historiko handia izan zen gaitasun handiko lursailan zegoelako, eta erdi aroko garaian itzali beharrean handiagoak egin ziren Infantado Dukearen titulua eduki arte.

Mendoza familiaren botereari dagokionez, herriak pikota eta justizia biribila mantentzen du. Iturria eta errota ere mantentzen dira.

Mendibil auzoan edo Goiko Auzonan antzinako etxe bat dago, antzinako dorre txikia da.

Erlizjiozko ondareari dagokionez, Mendozako San Martin parrokia desagertu da eta San Esteban parrokia mantentzen da.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina bere babeserako:



- Errota (530 Fitxa)
- Mendibil Etxea 17 (109 Fitxa)
- Alto Mendia Altuko etxea 28 (106 Fitxa)
- Iturria (762 Fitxa)
- Eskolak(952 Fitxa)
- Zubia (569 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santa Agueda Baseliza, BAG 42
- Larrinzarko Nuestra señora baseliza, BAG 43
- San Bartolome Baseliza, BAG 44
- San Esteban Eliza, BAG 45
- Mendozatarren dorretxea, BAG 46
- Conde Orgaz Dorretxea, BAG 47
- San Martín Eliza, BAG 48 (gaur etxebizitza)
- San Mames herrixka, BAG 49. Erdi aroko asentamendua
- El Prado/Labiturri asentamendua, PBAG. Brontza aroko aztarnategia.

● **Miñano Mayor/ Miñao:**

Vitoria-Gasteizko Iparraldean kokatutako herria da. Gaur egun lasaitasuna irabazi du, Legutiano, Barazar eta Arlanbanera joateko hemendik pasatzea ezinbestekoa ez delako. Duela urte batzuk, errepide nagusia herriaren erdialdetik pasatzen zen, gaur egun berriz, saihebidia egin da.

Leku hau lautada dago, laborantzarako lurraldeen erdian. Urte askotan zehar, ibilgailuen trafikoa eta altzarien fabrikako altzarien kokapena ere eragin zieten, Miñao bere xarma galdu zuen landa-gune gisa. Gaur egun, bere ingurune naturalak daukan aldakuntza handienak Miñaoako Parke Teknologikoaren eraginez sortu dira.

San Lorentzo tenplua, herriaren interes arkitektoniko elementurik nabarmenena da.

Udalerrriaren beste eliza askorekin erdi aroko aztarnak kontserbatzen dira. Garapen handiko ojibal-atea oso nabarmena da, bere arkibolta anizkoitzen bidez. Arkeologi Gune bezala proposatua, MM 93.

Eusko Jaurlaritzak babesarako proposatutako higiezinak:

- Etxea 12 (782 Fitxa)



- Eskolak (958 fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santiago Baseliza, BAG 90
- Arakako Uribarriko San Andres eta tenplua, BAG 91, Erdi Arokoa
- San Juan Baseliza, BAG 92
- San Lorenzo Eliza, BAG 93
- Las Huertas asentamendua, BAGGI

- **Miñano Menor/Miñao Gutxia:**

Miñao goien eta Miñao Parke Teknologikotik gertu dagoen herria da. Miñao Goien herria baino gehiago landa izaera mantentzen du.

Bere ondasun zibila laborantzarako etxe batzuez osatuta dago.

San Bizente Mártir eliza, nabarmentzen dugun interes historiko-artistikoko elementu bakarra da. Inguratzailea izan arren, elizak bere erdi aroko egitura osoa mantentzen du, hau da, bere egitura erromaniko edo protagonikoa. Solairu bakarreko nabe bat da kañoi formako ganga batekin, gurutzeria sinplearekin eta harrizko arkuekin finkatua. Turuta formako leihoak mantentzen ditu erromaniko puntu batekin. Gaur egun itxura zaindua aurkezten du, presbiterioan ez dauka erretaularik, ondorioz opalmahaiaren erromaniko garaiko leihata eder bat ikustea posible da. BAG 89 da.

Babesa proposatzen dugu tenplu honen monumento bezala.

Datu arkeologikoak:

- Santiago Baseliza, PMM 90
- Gernikako herrixka, BAG 245. Mendarozketa, Ziriano eta Mendigurenekin komunean daukan populatu gabeko erdi aroko lursaila.

- **Monasterioguren:**

Vitoria-Gasteizko hegoaldean dagoen herria, Gasteizko Mendien eta Okinaren adar inguruko mendilerroetan. Gaur egun zonalde honetan oraindik mantentzen da bere edertasuna, bakarrik apur bat aldatu izan da gizonaren lanagatik laborantzako finketan.

Herriko etxeak nahiko zakabanaturik daude: antzinako etxeak daude, laborantzakoak, berriztu direnak, eranskinak dituztenak eta multzora integratzen diren bizitegi etxe berriak. Herri egoera onean kontserbatzen da eta espaloiei eta hiriko higiezi esker, kale-argiak adibidez, modernoagoa egin da.



Ondare zibillean antzinako baserri batzuk nabarmentzen ditugu, bereziki tamaina handikoak eta zurezko eta adreiluzko bilbekin egindak daudenak, adibidez elizaren aurrean aurkitzen ditugunak.

Monasterioguren herriaren arkitekturarik garrantzitsuena San Pedro Apostuluaren eliza da. 1991 eta 1994. urteetan Arabako Foru Aldundiak kontserbazioan parte hartu ondoren arkupearen eta estalpearen mantentze egoera ona da. Eliza erdi aroko atalak ditu, **bereziki deigarria arkupean dauden puntako bost arkuak.** Atea ere erdi arokoa da eta denbora asko ezkutatua egon da. Barruan, nabeak angeluzuzeneko espazioa osatzen du, barroko ganga batez inguratutako eta kanoi ganga batez estalita. Goiko partearen alde bietan kaperak eraiki ziren. XVIII.mendean barneko espazioan erlantz klasiko bat jarri zen. Ipar-mendebaldean erromaniko garaikoa kanpai-dorre laukizuzen bat eraiki da. BAG 161.

Herriaren interes etnografikoko elementua errota da.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina babeserako:

- Errota (893 Fitxa)
- Etxea 8 (67 Fitxa)
- Etxea (603 Fitxa).
- **Zubia multzoan sartu da. Zadorra ibaiaren arroko zubiak (222/2017 Dekretua).**

Datu arkeologikoak:

- Juan delamiKelako herrixka, BAG 159. Hutsik dagoen erdi aroko herria.
- Santa Zezilia Baseliza, BAG 160
- San SebastianBaseliza, BAG 162

● **Oreitia:**

Vitoria-Gasteizko ekialdean kokatutako herria da, Estibalizko muinoaren oinetan eta Madrid-Irun trenbidearen alboan. Etxeak bide honen iparraldean daude. Oreitiaren sarreran nekazaritzarako pabilioi modernoak ikusi ahal dira.

Oreitiak, Alegría ibaiaren gaineko zubia banatuta dagoen auzo interesgarria da. Bere etxeen artean jauretxeak eta labana daukan landa etxe bat nabarmentzen dira. Argomaniz bidean, etxe berriko urbanizazio bat dago, txaletak hain zuzen ere.

Baina herriko elementu arkitektoniko nabarmena San Julian eta Santa Basilisa eliza da.

Parrokia Oreitiaren erdialdean dago, egoera on batean kontserbatzen da eta zaindutako ingurunean, ibai ertzeko basotxoaz azpimarratutako dugu, gaur egun parkea bihurtu dena. Higiezin hau erdi aroko egitura mantentzen du, argi eta garbi ikus daiteke hurrengo elementuetan: goiko parteko abside poligonalean, atarian, leihatetan eta bere egitura



monumentalean interes artistiko handikoa dela. Leiho erromatarretan, harburuetan eta higiezinaren goiko parteko idi-begiaren gainean erdi aroko motiboak zizelkatuak agertzen dira, bai animaliazkoak, landaredizkoak zein gizaki gaiei buruzkoak. Kanpoaldean, aipatutako idi-begian armadurazko zaldizkoa agertzen da. Aldi berean, elizaren solairua, tarte karratu batekin zabaltzen da, presbiterioa baino zabalagoa, eta lehenengo tarte, biak XIII.mendekoak. Aipatutako erdiko gorputza, ganga zaila batez estalita dago, izar formarekin eta gotikoa. Koroa Errenazimenduaren obra on bat da. Oreitiako parrokia gainera, historiko-artistiko higiezin asko kontserbatzen ditu, XVII.mendeko erretaula nagusia nabarmentzen da. Dorrea neoklasikoa da. BAG 122 da.

Hirigunearen nukleotik kanpo eta Elburgoko bidean, errota baten aztarnak kontserbatzen dira.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinaren etorkizuneko babeserako:

- Oreitia Etxea 12 (59 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Bolintxo Errota. (D) Matauko-Oreitia, BAG 120
- Uraldeko San Juan Baseliza, BAG 121
- Guevara-Lazarragarren Dorretxea, BAG 123
- Oreitia Errota, BAG 124
- Bidegutxi Aztarnategia, Erromanizazio eta Erdi Aroko PBAG 251 eta 252. **Ingurumena babesteko eta ez urbanizatzeko.**
- Isakuako Brontze Aroko Aztarnategia, PBAG 254
- Bidezabaleko erdi aroko asentamendua, PBAG

- **Otazu:**

Vitoria-Gasteizko hego-ekialdean dago, El Salvador kanposantutik gertu. Bere ohiko etxeetara familia bakarreko etxeak gehitu dira bakarrik bizitegi erabilpenarekin.

Otazu udalerraren beste herri batzuekin konparatuz tamaina erdiko landa nukleo bat da, ingurunean paisai naturala mantentzen da bakarrik aldatua laborantza finken eraginez. Kontzentratutako eraikin kopuru handia dauzka, zurez eta adreiluz egindako landa etxeak nabarmentzen dira, adibidez San Martin eliza, gurutzadura eta zubi berri bat.

Parrokiatik erdi aroko atari ederra azpimarratzen dugu, eskultura monumental interesante bat dauka bereziki zutabeen kapiteletan. Kanpai-dorrea berriz, kapitel disonante baten ezaldura aurkezten du. Arkeologi Gunerako proposatu da (PMM 143), bere ingurunean aurkitu den nekropoliagatik.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako elementu arkitektonikoak babeserako:

- Errota (537 Fitxa)



- Otazu Geltokia (512 Fitxa)
- Iturri zaharra (580 Fitxa)
- San Antonio Baseliza (56 Fitxa)
- Etxea 11 (55 Fitxa)
- Baserria (602 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- San Vitor Martir Baseliza, BAG 141
- San Bartolome Baseliza, BAG 142
- San Quirico eta Santa Julita Baseliza, BAG 144
- Olaran herrixka, BAG 145. Erdi aroko eremua

● **Retana:**

Vitoria-Gasteizko Iparraldean kokatutako herria, interes paisajistikoaren landa eremuan.

Ez daude antzinako etxe asko baina ohiko landa etxeak eta hirikoak nahasten ditu. Ezpaloiak, kale-argiak eta haurrentzako etxeak.

San Esteban parrokiaren tenplua eraikin itxuroso bat da, kontserbazio egoera onarekin, garai modernoan eraikita eta elementu gehienak XVIII.mendekoak dira. Honako hauek osatuta dago: arkupea, solairu luzea, goiko parte zuzena eta lau angeluko kanpai-dorre. XVIII .mendeko oskol formako erretaula eta barrokoa, sakristiaren altzarirako. Konplexu osoa luzitua agertzen da ertzak izan ezik, non harria ikus daitekeen. Monumentu multzo bezala proposatu da, 96 zk.

Eusko Jaurlaritzak babesarako proposatutako higiezina.

- Baserria (599 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- San Andres Baseliza, BAG 97
- Arakabea Etxola-Hondoa, PBAG 256
- Porrosolo erdi aroko asentamendua, BAGGI

● **Subijana de Álava/Subillana-Gasteiz:**

Vitoria-Gasteiz udalerraren Hego-ekialdean dago.



Herri honen interes historikoa nahiko handia da. Gatazka askoren eszenatokia izan da, Simon de Andaren (XVIII.mendea) etxea, Filipinasen espainolen interesak defendatu zituen ingeles eta lurraldeen gobernadorearen aurka.

Subillana aldapan altxatzen den herri bat da, bere etxeak maldan eraikiak daude. San Esteban eliza herriaren erdian dago eta ingurunean ondo zaindutako parke gune bat nabarmentzen da.

Subillana-Gasteizko etxeak, harriz egindako landa etxeak eta txalet motako etxe berriak dira. Eraikuntza zibilen artean **Simon de Andako Etxea (Monumentu kategorian kalifikatutako Ondasun kulturala)** nabarmentzen da, hala ere, armari etxetzar hau birgaitu behar da.

Parrokiako tenplua XVI.mendekoa da eta XVIII aldaketak izan zituen. Erretaula batzuk dauzka. Arkeologo Gune bezala proposatu dira, MM 189.

Datu arkeologikoak:

- Sanzornilko tumulua, BAG 19
- Sanzornilko nekropolia, BAG 20
- Burdin Aroko Peña Mayor esparru gotortua, Arkeologi Gune bezala proposatua MM 22.
- San Miguel Baseliza, BAG 190
- Berozaliko Brontze aroko asentamendua, BAG 263
- Alto Carasol asentamendu erromatarra, BAG 265
- La Dehesa asentamendua, BAG 267
- Lamimora asentamendua, BAGGI

- **Ullíbarri Arrazua/ Uribarri Arratzua:**

Vitoria-Gasteizko udalerrriaren Ipar-ekialdean kokatuta dagoen herri txikia da. San Esteban elizaren inguruan multzokatutako etxeak daude eta Laborantza lurraldeaz menperatuta dagoen landa ingurunea.

Eraikin garrantzitsuena parrokia da. Uribarri-Arratzuko San Estebanek atea protagoniko eder bat kontserbatzen du, eta eraikinaren erdi aroko egitura. Gurutzadura eta gurutze latindarraren beso laburrak XVI.mendekoak dira. Gorputz biko eta kapitela egindako kanpai-dorrea interesantea da eta XVIII.mendekoa da. Arkeologia Gune bezala proposatua MM 116. San Juan basiliza ere kontserbatzen da.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak babeserako:

- San Juan Baseliza (610 Fitxa)



Datu arkeologikoak:

- Doypako herrixkaeta San Juan tenplua, BAG 117
- Mamutxu Iturriaren erromatar asentamendua, PBAG 255
- Mutiandi Erdi Aroko asentamendua, PBAG 257
- Rotasarralde Erdi Aroko asentamendua, PBAG 261

● **Ullibarrí de los Olleros/ Uribarri Nagusia:**

Vitoria-Gasteizen hego-ekialdean dagoen herri ederra, Okina eta Gasteizko Mendien alboan. Ingurune naturala deigarria da, laborantzarako lurraldeak eta baso espazioa

Etxeak eskualdeko errepidearen alde bietan daude. Baina Jasokunde Ama Birjina elizaren ingurunean etxe gehien aurkitzen dugun zonaldea da. Landa etxe zahar eta berrien arteko nahasketa dago baina orokorrean herri zaindua eta garbia da.

Eliza bereziki XVI.mendean eraikitako da. Ataria XIX.mendekoa da eta silarrezko lan harriaz egindako hiru arkuz osatuta dago. Nabea luzea da eta goiko partea zuzena. XVI.mendeko bataiarria eta mende horretako oholtza kontserbatzen du. Kanpoaldean multzoa hiru gorputzeko dorre batekin osatzen da. BAG 153.

Uribarri Nagusia errota, garbitokia eta bolatokia kontserbatzen du.

Datu arkeologikoak:

- Uribarrigutxiko herrixka, BAG 154. Erdi aroko herri hustua

● **Ullibarrí-Viña/Uribarri-Dibiña:**

Vitoria-Gasteizko Ipar-Ekialdeko landa herria, Badaia Mendilerrotik gertu. Herria zirkuluerdi handi batean dago eta erdian finkez osatutako ibarbidea. Hegoaldean herrian sartzeko errepideen gurutzagunea dago.

Herriaren ekialdean eliza kokatzen da, talaia handi baten gainean, non ordokia menperatzen duen. 1996.urtean Arabako Foru Alduandiak parte hartu zuen jarduketan, ondorioz mantentze egoera egoera onean mantentzen da. Andra Mariaren Jasokunde eliza herriaren higiezin azpimarragarriena da.

Duela gutxirarte Andra Mariaren Jasokunde Eliza arkupezu inguratuta eta erdi-ezkutatua egon zen. Kanpoaldea erdi arokoa da, harburu lauekin eta leihate erromanikoekin. Barrualdean goiko parte laueko nabe bakarra dauka, presbiterioaz banatuta arku batez eta kanoi ganga batez ezta. XVIII.mendean tenplu osoa entokatu zen eta barneko perimetro osoa erlaitz klasiko batez inguratu zen, pilastren gainean eskoratuak eraikinaren hasierako euskarriak ezkutatzeko. Kaperak barrokoak dira. Bere higiezin **erdi aroko bataiarri eder bat deigarria da, armazoiez eta arrapala-lehoiez apainduta.**



Errenazimenduko erretaula nagusi bat (eskultura eta margoak) ere badago. Kanpokoaldean bereziki deigarria da erdi aroko kanpai-horma. BAG 53 da.

Landetxe gehienak eta bere eranskinak ondo kontserbatzen dira, harrian edo karezatuak, elizaren iparraldeko nukleo zentrala nabarmena da.

Uribarri-Viña ingurunea eta multzoa ondo zainduak daude, landa ingurunea mantenduz.

Datu arkeologikoak:

- San Juan Baseliza, BAG 52

● **Villafranca:**

Vitoria-Gasteizko udalerraren hego-ekialdean Villafranca kokatuta dago, Estibalizko muinotik gertu. Villanfrancatik Done Jakue bidea igarotzen da.

Herri txiki hau eta landa izaerakoa bere etheen artean solairu angeluzuzen formako armarri etxe bat kontserbatzen du, García de Estella familiaren Jauretxe bezala ezaguna dena.

XVI.mendeko San Andres Apostoloaren eliza, atari plateresko batekin, gurtza barik dago bere hondamendi egoeragatik. Vitoria-Gasteizko apezpikutzua lurrera bota nahi zuen baina Arabako Foru Aldundiak kontra jarri zen.

Argandoña eta Billafrankatik gertu, Estibalizko muinoren gainean Monasterio Beneditarra dago, historiako bitxi bat eta Arabako artearen bitxi bat da. Estibalizko Andra Maria monasterioaren basilika, kalitatezko monumento erromanikoa da, XII.mendekoa. Jatorrizko arkitektura asko kontserbatzen du (jarduketa ezberdinak egin dira, baina garrantzitsuenak 1904, 1927, 1943 eta 1972 urteetan izan ziren): eskultura multzoa monumentalak, salbuetsitako Birjina Estibalizko Umearekin dagoen irudia da, XII.mendekoak eta erdi aroko bataiarri bikain bat. **Estibalizko Andra Maria Basilika, Eusko Jaurlaritzak Monumentu bezala kalifikatutako multzoa da (EHAA, 2000.urteko otsailaren 11).**

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezinak bere babeserako:

- Billafranka geltokiaren nasak (514 Fitxa)
- Estibaliz Frontoia (1999 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

Eraikuntza biak Arkeologia Guneko proposamena daukate:

- Estibalizko Andra Mari basilika, PMM 127
- San Andres ApOstoloaren Eliza, PMM 128



- **Yurre/Ihurre:**

Arabako hiriburuaren Hegoaldean aurkitzen dugu Ihurre. Herri lasaia, oso ondo zaindua eta erdi-hiritarra da, ohiko landa etxeak eta etxe berriak nahasten dira, eta hiriaren azpiegitura propioak daude: ezpaloiak, harrentzako parkea.... Ihurreko sarreran txaraka bat dago, errekaaren alde bietan eta hortik gertu XVI.mendeko gurutzadura interesante bat eraiki da.

Gainera, herriaren erdialdean errota-etxea eta zubiak mantentzen dira.

Hala ere, herriaren elementurik deigarriena **XVI.mendeko Santiagoko parrokia da**, hegaletako batean **XIV.mendeko poliptiko bat** kontserbatzen du. **Ihurreko Poliptikoa EAE-ko erretaulorik zaharrena da eta Monumentu deklaratu da Eusko Jaurlaritzaren Ondasun Kultural Kalifikatuaren barruan.**

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina etorkizuneko babeserako

- Errota (532 Fitxa)
- Zubia (559 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santiago Eliza, BAG 78
- Ihurreko dorrea, BAG 79

- **Zerio:**

Arabako hiriburuaren Ekialdean dago, Estibalizko Santutegitik hurbil.

Zerio mendi-tontorreko eremu zabal batean dagoen herri bat da. Herriaren erdian egoera onean (eraikina eta ingurunea) mantentzen den eliza bat dago. Zerion, berriz, txalet gehiago daude landa-etxeak baino, orokorrean ondo zainduak eta eranskinekin. Txaletak herriaren erdian daude, hala ere, landa ingurunea mantentzen da.

Zerioko eraikinik interesgarriena XVI.mendeko Santiagoko parrokia da. Hala ere, XIII.mendeko atari protagoniko bat eta Andra Mari gotiko eder bat kontserbatzen da. Era berean, interesgarria da Santiago Matamoros-en erretaula nagusiaren ikonografia. **Zerio, Donejakue ibilbidetik gertu dago.**

Eusko Jaurlaritzak babeserako proposatutako higiezina:

- Santiago Eliza (359 Fitxa) eta BAG 131

Datu arkeologikoak:

- San Pelayo baseliza (ez zaio egiturarik ikusten). (E), BAG 132



- **Zuazo de Vitoria/Zuhatzu**

Hiriburuaren Hego-Ekialdeatik hurbil kokatuta dago. Urbanizatutako herria da eta oso zaindua, hiri izaera landakoaren gainean nabarmentzen da.

Zuhatzu mendi-tontor lautada baten gainean eraikita dago, bere etxeak Ekialdetik Mendebaldera doaz, erdi-aroko bidea jarraituz erromatar-galtzada ordezkatu du hurbileko zonaldea gurutzatuz.

Hegoaldeko sarreran hormaz inguratutako espazio bat existitzen da, bertan Zuhatzuko Dorrea dago, Arkeologi Gunearen Inbentarioan ez dago ondo kokatuta. Landa-etxeak ondo mantentzen dira (nahiz eta batzuk hondatutak egon). Etxe hauek landa esparrura egokitutako beste batzuekin nahasten dira. Hirigune erdiko antzinako eskola gaur egun Zentro Soziala bihurtu da.

Ekialde eta Iparraldeko hegaletan urbanizatzen hasi da txalet berriak eraikitzeko.

San Esteban parrokia, XVI.mendekoa da, eta monumento arkitektoniko nabarmenena da. Bertan puntu erdiko erdi-aroko ataria kontserbatzen da, eta rokoko garaiko erretaula bat. BAG 205 zk. da.

Zuhatzu Donejakue bidearen barruan dago.

Iparraldean erkametz basoaren babesaren proposatzen dugu.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako higiezina babeserako:

- Etxea 13 (17 Fitxa)
- Etxea 15 (14 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- **Vitoria-Gasteizko Zuhatzu dorrea, BAG 206. Bere kokapena ez da egokia.**
- San Juan Tenplua, BAG 207
- San Miguel Tenplua, BAG 208

- **Zumelzu/Zumeltzu:**

Vitoria-Gasteizko herria, hiriburuaren Hegoaldean kokatua eta Zaldiaran Mendien hegalean.

Harriz egindako landa multzoen etxeak, batzuk ondo apainduak. Etxe modernoak ere badaude, zehazki ibai ondoan eraikitako txaleten urbanizazio bat. Era berean, nekazaritza pabilioiak ere ikusten dira.

Antzinako etheen artean dotoreagoa den baten bat aurkitzen dugu. Zehatz mehatz zurez eta adreiluz egindako bat konponketa bat behar du.

Kanposantua herriaren sarreran kokatuta dago.



Zumeltzuren hirigunean San Juan Bautista parrokiaren tenplua eraikuntza bikainena da. XVIII multzoa da, hala ere, erdi aroko ataria mantentzen du. BAG 188

Zumentzu Donejakue bidearen barruan dago.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako elementua bere babeserako:

- Etxea 10 (11 Fitxa)

Datu arkeologikoak:

- Santa Marina Baseliza, BAG 186
- Santa María Baseliza, BAG 187
- Las Esquinas asentamendua, BAGGI 268
- Los Mojones asentamendua, BAGGI 269

Liburuki honen II ERANSKINEAN, Tokiko Erakunde Txkien Eraikitako Ondareari buruzko alderdi nagusiak batzen dituzten taulak:

- 1 Taula - TET-ko Ondare Historiko-Artistiko. I Maila: Eusko Jaurlaritzak kalifikatutako edo inbentariatutako eraikinak edo elementuak.
- 2 Taula - TET-ko Ondare Historiko-Artistiko. II Maila: Eusko Jaurlaritzak eta HAPOak kontuan hartu dituen tokiko edo udalerriko babesak daukaten eraikinak edo elementuak.
- 3 Taula - TET-ko Ondare Historiko-Artistiko II Maila: Egungo HAPOak baloratzen dituen tokiko edo udalerriko babes eraikin edo elementuak.

11.3.4 ONDARE ARKEOLOGIKOA

Vitoria-Gasteizko udalerriak Monumentu Multzo, monumentu edo landa gune babes legal espezifikoa daukan zerrenda garrantzitsu bat dauka. Ondasun kultural kalifikatuaren erregistroa edo Euskal Ondare Orokorraren inbentarioarekin bat datorrena eta egungo araudiarekin adostua dagoena.

2008-2010 bitartean kaleratu ziren txosten sektorialetan agertzen diren zerrendak eta kategoriak mantentzen dira, Ondare kultural zentroaren eskutik inbentario berri bat beharrezkoa izanik.

- Kalifikatutako ondasun kulturalak
 - **Arkaiako Arkeologia gunea** (EHAA, 148 ko 3-8-2000).
 - **Donejakue bidea 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa**



Katgoriarako Kultura Ondasuna Sailkatua izendatzeko. (EHAA 19zk, 2012.urteko urtarrilaren 27a).

- Hasitako Arkeologia guneak
 - **Kurtzemendi herrixka harresiaren Arkeologia gunea** (1995-10-16 ebazpena-EHAA, 2012. 1995-11-7)
- Inbentariatutako Arkeologi guneak
 - **Vitoria-Gasteizko Hirigunearen Arkeologia gunea**(EHAA 9, 15-1-1997). Objektu arkeologikoarekin nahitaezkoa da mugatutako eremuaren lurpeko azpiegiturretan eragiten dituzten obretan.
- Balizko arkeologia guneak (BAG) (Ebazpena, EHAA 1997-8-7).Zerrenda barne, jarraibide metodologikoen arabera:
 - Inbentarioari dagokion identifikazio zenbakia.
 - Izendapena
 - Eremu mugen tipologia, parentesien artean, bere definizioa hurrengoa da.
 - (A) Motakoak: Eraikinaren hormez barruko esparruak.
 - (B) Motakoak: Eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita.
 - (C) Motakoak: Elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita.
 - (D) Motakoak: Eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua.
 - (E) Motakoak: Planoan zehazten den esparrua.

Liburukiaren III ERASKINEAN Ondare Arkeologikoaren katalogoa agertzen da. 1 Taula: Ondare Arkeologikoa.

11.3.5 IBILBIDE KULTURALAK


Balioan jarriz eta gure ondarea ezagutzera emateko helburuarekin ibilbide kultural ezberdinak ezarri dira Kultura Ondarearen ezagupena mesedegarri egiteko. Hala ere, Hasierako Azterketan proposatu ziren gehienak garatzeko zain daude.

Hurrengoak azpimarratzen ditugu:

- **Donejakue bideko ibilbidea: 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako kultur Ondasun sailkatua izendatzea** (EHAA 19zk. 2012.urteko urtarrilak 27). Dokumentuak multzoak eta ondare elementuak lotzen ditu bidearen ibilbide osoan zehar.



Ibilbide hau, ibilbide fisikoaz gain ibilbide jarraitua eta ziurra dauka erromesentzako eta zeharkatzen dituen tokien Kultura Ondareak ikustea baimentzen du. Ezaugarri hauei dagokionez, ibilbide elkarreragileak eta tokiko izaera historiko-kulturalak nahasten ditu.



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. 2/2012 Dekretua kultur ondasuna kalifikatua, Monumentu Multzok kategorian, EAetik pasatzen den Donejakue bidea.

Dokumentu honen IV. Eranskinean hurrengo zerrenda ezartzen da:

- *“Donejakue bideari lotutako bide historikoak”*, Argandoñatik Askartza arteko bidea eta Subillatik San Migelera arteko bide zaharra barne.
- *“Oinarrizko babes-maila izango duten zubiak”*, Alegria ibaiko zubia (Oreitia) eta Arkaiako 1 eta 2 zubiak.
- *“Donejakue Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak. Babes berezia”*. Katedral berria, Estibalizko Santutegia; Jaiokundeko Ama Birjinaren eliza, San Prudentzio basilika, Santuaren jauregi etxea eta Simon de Anda jauregi-etxea.
- *“Donejakue Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak. Babes berezia”*. San Pedro Eliza (Elorriaga), Kapareen junta-etxea (Elorriaga), San Julian eta Santa Basilisa eliza (Oreitia), Ortiz de Zarate familiaren jauregia (Oreitia), San Migel eliza (Askartza), Santa kolunba eliza (Argandoña), Diaz de Arkaiako jauregia (Arkaia), Jainkoaren Antzaldaketaren eliza (Gometxa), San Esteban eliza



(Subillana. Vitoria-Gasteiz), San Julian eta Santa Basilisa eliza (Ariñiz) etab. Besteak beste bere barnean daude.

- o “Donejakue Bideari lotutako eraikinen hondarrak”, Gurutzea (Armentia) edo Mariturriko iturria (Armentia).

Nahiz eta ibilbidea kentsolidatua egon, mugagarri historiko ezberdinen azalpen batekin osatu behar da, bere diseinuan aurkitu daitezkeenak (erantsitako planoak).

- **Erromatar galtzadaren ibilbidea (Iter XXXIV)**, Astorgako eta Burdeos lotzen ditu, barneko ibilbideak paraleloki mugitzen da, Udalerria Mendebaldetik Ekialdera zeharkatuz.

Ibilbide elkarreragileak sortzea proposatzen da, Erromatar Ibilbidea deritzona azpimarratzen dugu, garai horretako aztarnategiak lotuko dituztenak: Arkaia, Mariturri eta Atxa, Armentiatik pasatuz, eta aurreko ibilbide biak jarraituko dituenak, ia bere osotasunean.

- **Antzinako Vasco-Navarro trenbidearen ibilbidea berdea**, Arabako Lurralde Historikoaren ibilbide berdeen katalogoan dago. Vasco-Navarro ibilbidea Vitoria-Gasteiz zeharkatuz Nabarrako Estella geltokitik Gipuzkoako Mekolalde geltokiraino heltzen zen.

Gaur egun trenbidearen ibilbidea partzialki ibilbide berde batean bihurtu da bizikleta eta oinezkoentzako, aldi beran, bere ingurunean interesezko mugarrak ere badaude: zubiak, geralekuak eta geltokiak.



Iturria: Eusko Jaurlaritzak



- **Zadorra ibaia arroaren zubiak** Kultura Ondasuna bezala sailkatzen da, Monumentu Multzo kategoriarekin, Irailak 19ko 222/2017 Dekretuaren bidez.

Eusko Jaurlaritzak Zadorra ibaia arroaren 88 zubi balioan jartzen ditu eta babesten ditu, XV eta XX mendeen artean eraikitakoak. Banan-banan baloratuz gero, balio estetiko bat daukate baina bere garrantzia multzo bezala da, hau da, lurraldea egituratzen dutenak.

IV ERANSKINean, Ibilbideen Ondare Historiko eta kulturalari buruzko taula nagusienak daude:

- 1 Taula- Donejakue Bideko eta Zadorra Zubien Ondare Historiko Artistiko
- 2 Taula- Vasco-Navarro Trenbidearen interes kulturalako elementuak

11.4 PAISAIARI BURUZKO ALDERDIAK

ONDARE PAISAJISTIKOARI dagokionez, jarraian Plan Orokorreko helburuak garatzeko kontuan hartu beharreko esparru juridikoa garatzen da:

- 2000.urteetik Europak erreferentzia elementu bezala **Paisaiaren Europako Hitzarmena** (PEH) dauka, bere helburu ondare komunak babestu eta sustatzea da, orekan oinarrituta jasagarritasun garapena lortzeko harreman orekatsua eta atseginari esker eta behar sozial, ekonomiko eta ingurumenaren artean.

PEHri atxikitzearen ondorio den konpromisuetako bat paisaia lurralde-antolamenduko eta hirigintzako politiketan sartzea da, aldi berean bere politika kulturaletan, ingurunean, sozial eta ekonomikoetan integratzeko; **2007an Espainiak berronetsi zen (EAO, 31zk. 2008.urteko otsailaren 5ean)**. Indarrean sartu zen 2008.urteko martxoak 1ean.

- Autonomi mailara, **90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu**, kudeatu eta antolatzearen gainekoa (EHAA 112 zk. 2014ko ekainak 16), paisaiari buruzko zenbait elementu ezartzen eta erregulatzen ditu:
 - Lurralde plangintzaren bitarteko instrumentu eragileak: Katalogoak eta Paisaiaren zehaztapenak.
 - Instrumentu eragilea: Ekintza-planak.
 - Paisaiaren integratzearen azterlan instrumentua, zehaztutako jarduketak ziurtatzeko zuzenduak.
- Gaur egun berrikusketan dauden **EAEko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak** (Hasierako onarpena), LAGen gabezia bat konpontzen dute; ingurune natural eta hiriko ingurunearen analisi morfologiko eta lurralde paisajistikoa.



LAGen Berrikusketak helburu bat bezala, dibertsitate biologikoa kontsolidatzea eta sistema naturalen jasangarritasun erabilera ikusten du. Aldi berean, paisaien ugaritasuna ere helburu bezala ikusten du, ingurunearen oinarritzko elementu bezala ikusiz eta lurraldearen identitatea adieraziz. Oinarritzko helburu bezala paisai deigarri bat lortzea definitzen du hurrengo eginkizunekin: udal planetan Paisai Ikerketak garatzearen beharra, abiapuntu bezala lurraldearen morfologia eta ezaugarriak hartu, biztanleria nukleoan barruan daukaten eragina, komunikazio bideak, etb...

Halaber, Ingurune Fisikoa zaintzeko eta kalitatea handitzeko oinarritzkoa da Paisaia kontsideratzea, bere garrantzia ezinbestekoa da diferentziazio faktore eta lehiarako abantaila bezala.

- **Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialeko Antolamendu Arauetan lurraldeko** “Esku Hartzeko Moduak” lantzen dira. Paisaia eta ingurunekeo egitura akzioak aipatzen dira, lurralde loturak bereiztu egiten dituzte “gaiko ibilbideak” bezala; eta Vitoria-Gasteizen eragina dutenak azpimarratzen dira:
 - AE-6 Ingurunearen aprobetxamendurako ibilbidea, Vitoria-Gasteizko alde zaharreko hego-ekialdetik hasita, Mendiola eta Gamiz eremuen norabidean Iruaiz-Gaunara iritzi arte, Arabako Mendira bideratzeko.
 - AE-7 Araba Hegoaldeko eskualde arteko ibilbidea, Vitoria-Gasteizko hiriburuaren hegoaldetik hasita, Vitoriako Mendiatarako bidean Arabako Errioxara bideratuta Trebiñu zeharkatuz.
 - AE-8 Ipar-Mendebaldeko ordezko ibilbidea: Ibilbidea N-622 autobiarri paralelo izan beharko zen, Letonatik hurbil. Jarraian, Ipar-Ekialdetik abiatuz antzinako N-622 errepidea Murgiaraino.
 - AE-9 Donejakue Bidea: Vitoria-Gasteizko udalerrria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du. Ibilbidearen izaera turistiko-kulturala da.

Antolamendu arauetan, “erregulazio generikoen” barruan ingurune erregulazioa zehazten da. Besteak beste agertzen dira: paisai erregulazioaren zehaztapen orokorrak, LAGen zehaztapenak betez paisaia arloan.

- **EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS (17/2014 Dekretua, 2014ko irailaren 16koa)** paisaiari buruzko zehaztapenak kontutan hartzen ditu, hurrengoak azpimarratuz:
 - Aldaketa gutxiko paisaia bateko baldintzatzaile gainjarri baten aurreikuspena, LPS Araudiaren 76.artikuluan finkatua dago. Arabako kasuan lurzoruen muga LPSak aplikatu beharreko baldintzatzaile gainjarria Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoari jotzen du.
 - Irizpide paisajistikoak, baldintzatzaile hau daukaten lurzoruetan egongo dira, LPSaren 4.eranskinan ezarritako daudenak.



- Euskadin, paisaiaren aldeko hobekuntza konpromisua Garapen Iraunkorraren **Euskal Ingurunearen Estrategian (2002-2020)** agertzen da. Bertan aurkitu ahal dugu: **EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien katalogoaren** elaborazioa eta ondorengo kontserbazio eta zaharberritzen planen idazketa katalogatutako paisaia bakoitzerako, proiektua 2005.urteko abenduan aurkeztu zen.
- **Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen katalogoaren** (829/2005. Erabakia, irailaren 27ko Diputatuen kontseiluarena, 829zk) helburuak: lurraldearen paisaia bikain edo bereziak kontserbatzea, errealizatu edo zaharberritzea, ikerketa, inbentario eta kartografia ezberdinetan oinarritutako diagnostiko katalogoaren bidez.

Katalogoak 72 espazio mugatzen ditu, PEHeko irizpideetan oinarrituta. Lurraldean balio handiena daukaten alderdiak hurrengoak dira: Vitoria-Gasteizko Zadorra ibaian eragina dutenak, Badaiako Mendilerroan eta Arratoko Mendietan topatutako zonaldeetan, Arabako Lautadaren tontorretan, etb.